

ttüpi-ttapa


1995eko azaroak 30 • 171. zenbakia

Erreportaia

**Baztan, Bortziriak, Malerreka
Zaborrekin zer?**



NAFARROAKO EUSKAL KANTU TXAPELKETA
KANTARI BERRIEN PLAZA



Polo Berria

Desberdina da,
bere kalidade, fidagarritasun,
kapazidade, segurtasun eta prezioarengatik.

1.295.000 Pta.

Polo Berria. Volkswagen-eko tikiak xume izatearen haunditasuna erakusten du. Kanpotik eta barrendik, dotorea eta dinamikoa, egiazko Volkswagenak bezalaxe. Polo Berria maniobratzeko goxoa da, segurua eta barrendik lekutsua. Volkswagen bati dagokion fidagarritasuna, ekonomia, iraunkortasuna eta kalidade haundiko teknika frogatu ahal izanen duzu berekin.

BEZa, garraioa, matrikulatze zerga eta promozioa prezioan sartuak. Eskaintza baliagarria hilabete bukaera bitarte.



Polo Berria

Volkswagenen kontzentratua

SAMPI ARAGON

Leitzako errepidea • ☎ 450354 / 450759

D O N E Z T E B E

**MUEBLES
AMETS**
mobleak orokorrean

BIDASOA Karrika 45-60 • Tfnoa: 948-630537 • BERA



DATUAK

❖ Abenduaren 2an izanen da kanporaketa Leitzako zinetokian eta 16an finala Doneztebeko Bordatxon.

❖ Maitere Susperregi eta Tere Mariñelarena leitzarrek osatzen zuten 'Izarra' bikotea Euskal Kantu Txapelketa ezberdinetan.

❖ Aurretik, Leitzako Jeiki koralean aritu ziren, Florencio Irurtia zuzendari zutela.

❖ Maitere profesionalki musika lanetan aritu da, 'Scala 2000' eta 'Haritza' berbena taldetako kantari bezala.

❖ Aurten ez dute Nafarroako Euskal Kantu Txapelketan parte hartuko, 'oso ikusita' omen daudelako.

'IZARRA' bikotea:

«Gero eta maila haundiagoa da Euskal Kantu Txapelketetan»

NOIZ HASI ZINETEN ELKARREKIN KANTUAN?

Lehen txapelketara orain 17 urte aurkeztu ginen. Burlatan, kantu bokazionaleko festibal batean. Gai erlijiosoak hartuta gazteak aritzen ziren kantari. Aurretik 'Jeiki' koralean Europan barna ibili ginen. Maila altura iritsi ginen, Tolosako lehiaketan ere parte hartu genuen eta postu ona lortu. Bikote bezala, Nafarroako lehen Euskal Kantu Txapelketan parte hartu genuen 1987an. Nafarroakoa eta Euskalerrikoa irabazi genuen urte horretan. Geroztik hainbat sari jaso izan ditugu.

ZEIN ASMOREKIN PLAZARATU IZAN ZARETE?

Ongi pasatzeko, batez ere, kriston giroa izaten delako ondoko afarian eta. Bestela, gaizki pisa besterik ez duzu egiten, lotsa, nola jarri ez dakizula... Prestatzen ongi pasatzen da, baina momentua ailegatzerakoan...

TXAPELKETAREN ONDOREN, SEGIMENDU EDO PROMOZIO-RIK EGITEA BEHARRERKOA DA?

Euskalerriko finaleko kantuekin zinta bat



ateratzen da, baina horrelakoetan ateratzen garenak ez gara profesionalak, orduan... Gero bai, badira profesional egin direnak, Patxi Saiz, Jojo eta Ramuntxo, Irigoien anaiak...

KANTUGINTZARAKO HARROBIRIK BADA NAFARROAN?

Harrobi haundia dago, baita oso ongi kantatzen duen jendea ere, baina jende aurreko lotsa hori gainditu behar da. Gainera, maila gero eta altuagoa da eta lan haundia egin behar da, laguntzaileak aukeratzeko, kantu bereziak bilatzeko... Giro berezia sortzen da honelako txapelketetan eta musika berezia aditzen da. Agian, tabernetako musikarekin ohituak dauden gazteek ongi ezagutzen ez dutena.

ZERTARAKO DIRA BALIAGARRIAK TXAPELKETA HAUEK?

Bada kantuan ari tzea gustoko duen jendea eta beste aukerarik ez duena. Irabaztera ateratzen den jendea ere bada, azaltzeagatik edo...

KANTU ZAHARRETAN GELDITU BEHAR DA EDO BERRIEI LEKUA UTZI BEHAR ZAIE?

Antolatzen duenak zein helburu dituen ikusi behar da baina nolabait bereizi beharko litzateke.

► *“Euskal kantugintzarako harrobi haundia dago Nafarroan, baita oso ongi kantatzen duen jendea ere, baina jende aurreko lotsa hori gainditu behar da txapelketan parte hartzeko”*



Bi hizlari eta aurkezle bat, hirurogei lagun inguru eta hiru orduko eztabaida saioa izan zen Doneztebeko Liburutegian azaroaren 6an. Hutsegin zuten, ordea, Baztan eta Bortzirietako Zabor Mankomunitateetako ordezkariak, Javier Lekunberri Iruñerriko Zabor Departamentuko ordezkaria eta Miguel Sanz, berriki arte Nafarroako Gobernu-ko Ingurugiro teknikaria izana. Afera zen eta da, eremuko zaborrak nola gestionatu erabakitzekeo bideak zabaltzea. Eztabaida Foro hau antolatzea Behinpin Elkartearen kargo zegoen, Malerreka Mankomunitateak eskatutako programa baten barruan.

TESTUA :
JUAINAS PAUL

BAZTAN, BORTZIRIAK, MALERREKA ZABORRAREKIN ZER?



hasiera emateko Eztabaida Foroari, Nafarroako Gobernua burutzen ari den 'Zaborren Gidaritza Plana' rentzat 'Coopers & Lybrand' enpresak egindako ikerketatik bildutako datuak azaldu ziren. Ikerketa horretan eta zaborren kudeaketari dagokionez, 5 proposamen egi-

ten dira eremu honetarako. Itxura denez, aitzinera begira Baztan, Bortziria eta Malerreka Mankomunitateen elkarketak ez du zalantza haundirik planteatzen.

'COOPERS & LYBRAND' EN PROPOSAMENAK

Aipatu bezala, enpresa honek 5 aterabide proposatzen ditu. Hoietatik lautan, labe haundi bat eraikitzea ageri da, zabor guzia erreko luke-

ena, hiru alternatibatan Sunbilla kokatua, eta laugarren alternatibaren zehaztu gabe uzten da labearen kokapena. Sunbilla agintariak, ordea, horren kontra agertu ziren aspaldian, eta Eztabaida Foro honetan labea eraikitzearen proposamena defendatu behar zuen teknikoa, Miguel Sanz, ez zen etorri. Gauzak horrela, ezagunagoa zaigun Beintza-Labaiengo labeaz solastu zen Liburutegian.

LABEEKIN ESPERIENTZIA ARRAS NEGATIBOA

Eztabaida Foroan azalduenez, Beintza-Labaiengo labearen zaborraren %80a kanpoan erretzen da, eta labearen barruan %20a. Labeak ez du ekearentzat filtrorik. Erretzen ez diren hondakinak han gelditzen dira kontrol gabeko zabortegetan bezala. Baztango labearen egoera ere berdintsua da. Hitz gutxitan: diru pila izugarria

gastatu dela funtzionatzen ez duen sistema batean.

Zentzugabetzat jo zen orain beste labe bat haundia egitea, gutxienez bi arrazoiengatik. Batetik, inork ez duelako nahi bere herrian, eta bigarrenik, aipatzen diren seguritate teknikoak eta kutsadura aldekoak eztabaigarriak direlako.

ZABORREN

TRANSFERENTZIA BILTEGIA

Askoz erakargarriagoa dirudi, itxuraz, 'Coopers & Lybrand'ek proposatzen duen bosgarren irtenbidea; Mugairin Zaborren Tranferentzia Biltegia egitea. Hor, eremu-ko zabor guzia zamatuta, trinkotu eta Gongorako zabortegira bidaltzeko prestatuko zen. Horrela, bertan arazorik ez, bainan argitu beharko zen, hori bai, Coopers & Lybrand-ek eginiko planaren arabera zabor organikoa hemengo zabortegi batean utzi beharko zela, eta zabor organikoa da arazo haundiena sortzen duena, hemengo zabor guziaren %60a baita gaur egun.

GONGORAKO ZABORTEGIA

Arangurengo alkate zen Jose Antonio Villamayor zabortegia eraiki zenean, eta Gongorako zabortegiarekin sufritu zituzten gehiegikerien berri eman zuen. «Egin dituden zabortegiak ez dituen legeak betetzen, Gobernuak lege berriak asmatu zituen betetzen ez zutena ezaltzeko. Ez da harritzekoa Miguel Sanz eta Javier Lekunberri honat ez azaltzea. Aurpegia gorrituko zitzaie!». Villamayor-ek dioenez, Gongora egoera larrian dago. «50-80 urtez egunero 200/300 tona zabor hartu behar zuen zabortegiak, gaur egun 450 tona hartzen ditu; proiektuan azaltzen zen konpost egiteko planta ez da egin; zaborra ez da egunero ezaltzen; Ospitalerako hondakinak ere botatzen dira; udalkideei debekatu zaigu zabortegia azterteaz; zabortegia Iruñerriako egin zen eta orain Larraun, Leitza, Lekunberri eta Goñitiek ere eramaten du-

te zaborra, %5a gaindituz...». Villamayor-ek zioen, kanpotik zabor gehiago ez eramateko ahal duten guzia eginen omen dute. «Zentzugabea da zaborra hemendik harat eramatea». Eta datu kezkarri guzi hoiaren artean, beste hau: proiektuan zabor guzien %18a berziklatzea aurrikusia zegoen. Gaur egun, %8a berziklatzen da doi-doi, eta latak, papera, kristalak... dena nahasia biltzen denez, zeharo oztopatzen da berziklapena. Bukatzeko, Karkar herriko adibidea jarri zuen eredu gisa, Jurramen-diko Mankomunitateak antolatu dituen kanpainak eta bilketak, alegia.

BERZIKLAPENA

Lorea taldeko Isabel Fernandezek defendatu zuen birziklapenaren irtenbidea. Emakume ezaguna da Isabel eremu honetan. 1986an Malerrekan aritu zen berziklatze kanpaina batean, eta gauzaten hasi zenean, Administrazioak 'boikoteatu' egin zuen eta oraingo bilketa sistema eta labea ezarri. 1994an, Malerreka Mankomunitateak eskaturik, beste aurreproiektu bat egin zuen Giroaz taldekoekin batera. Isabelek Karkar-eko esperientzia positiboki baloratu zuen. «Zaborraren %60-65a berziklatzen da; materia organikoekin kalitate oneko konposta egiten da; 40.000 biztanle duen Mankomunitateak jendearen partehartze haundia lortu da, eta gainera, kanpotarrentzat bisita leku ere bihurtu da zabortegia. Han zabortegia izkutatu beharrean erakutsi egiten dute! Eta guzi hori prezio berdintsuetan eta lanpostuak sortuz».

...ETA

EZTABAIDA IREKI ZEN

Hizlariek beren esperientzien berri eman ondotik eztabaida tarte zabalduta zen. 'Ecolan', Baztan eta Bortzirietan aritu eta ari den enpresako bi partaideak bertan zituen. Hauek neurketa lasaia goa aholkatzen zuten, Transferentzia Biltegiaren abantailak

URTETIK URTERA ZABOR GEHIAGO

1988

	Biztanleak	Zabor Tonak urtean
BAZTAN	8.243	2.106
BORTZIRIAK	8.720	2.228
MALERREKA	5.548	856
Denetara	22.511	5.190



1993

	Biztanleak	Zabor Tonak urtean
BAZTAN	7.989	2.100
BORTZIRIAK	8.466	4.000
MALERREKA	5.241	2.000
Denetara	21.696	8.100



2000

	Zabor Tonak urtean	Eskonbro Tona / urtean
BAZTAN	2.450	
BORTZIRIAK	4.800	
MALERREKA	2.350	
Denetara	9.600	9.100



OHARRA: Bortzirietako kopuruak haundiagoak dira baserrietako zaborra ere biltzen delako. Baztan eta Malerrekan ez.

ZABORRAREN OSAKETA

Zonako zaborraren osagaiak aztertu ondotik, banaz bertze, haxe da bere konposizioa

MATERIA ORGANIKOA.....	%61
PAPERA-KARTOIA.....	%12
PLASTIKOAK.....	%5,6
KRISTALA.....	%5,3
TRAPUAK.....	%3
METALAK.....	%3,5
TOXIKOAK.....	%2,4
TETRA-BRIK.....	%2,4
Bertzeak.....	%4,7

DATUAK: 'Giroaz' eta 'Lorea'ren ikerketa

lak ongi zehaztuz eta behar-bada Karkar-era eramanez daitezkeela seinalatuz. Posibilitate hau, izan den kostearen esku utzi behar zela iduritzen zitzaie. Ideia honen kontra mintzatu zenik ere egon zen, Transferentzia Biltegiak zabor guzia nahasten duela esanez, eta gero berziklatzeko traba dela argudiatuz. Momentuz, estudioak ez du aurrikusten Transferentzia Biltegitik hondakin organikoak eramatea, eta ondorioz, zaborraren erdia hemen tra-

tatzen segitu beharko zen.

Ezizpide ekonomiko soilen kontra zeudenak ere solastu ziren. Hauek ziotenez, kalitatezko kudeaketa edo gestioa segurtatu behar da, ahalik eta zabor gutxienez sortuz eta ahalik eta gehien berziklatuz.

Gaur egun egiten den gestioa plazaratu zuen batek, eta gaia, eztabaida motibo bihurtu zen. Kudeaketa txarra izan dela eta hala segitzen duela izaten zioen.

Bere baitan herri txikiak biltzen dituen Mankomunitatearen gestio-zailtasunak nabarmendu zituen beste batek. Bazegoen baita, Mankomunitateak erabaki garbi bat hartu eta eztabaidarekin segitu beharko zuela zioenik ere. Beste baten iritziz, kudeaketa, herri bakoitzak egin beharko luke, eta Mankomunitatea, dagoeneko, Transferentzia Biltegiaren aldeko agertzen ari da.

Eztabaida ireki zen eta segitzeak merezi du. Gaur egun go hiru Mankomunitateak elkarturik edo bakoitzak bere aldetik, zaborren arazoa hor- txe dago, bideratu zain. ■

EGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 6.100 ALE

RGITARATZAILEA: TTIPI-TTAPA KE
HERRIKO ETXEO PLAZA, 1
31780 BERA
TFNOA: 63 11 88
FAXA: 63 12 91

zendaria: Joxemanuel Iri-
en. **Publizitatea:** Miren Kar-
le Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor
ozena, Joxemanuel Irigoin.
ministrazioa: Amaia Goia.
redakzio taldea: Pello Ape-
xea, Juainas Paul, Kristina
an, Bittori Telletxea.
riemaileak: Joseba Azpiroz,
teban Arozena, Juana Mari
zar, Ainhoa Mutuberria, Iban
si, Txema Aldabe, Pello Etxe-
a, Txema Urroz, Patxi Otxan-
ena, Ixabel Maia, Josune Etxe-
ste, Pablo Mendiburu, Joseba
rabide, Alizia Olaizola, Margari
enike, Koro Irazoki, Mixel
rendiain, Jacqueline, Elixabet
rria, Garbiñe Maiz, Oskar
perena, Alberto Sansiñena,
lo Apezetxea, Aitor Arozena,
stina Boan.
laboratzaileak: EHNE Nafa-
a, Patxi Lasa, Mikel Bezunar-
a, Joxe Javier Etxeberria,
ntxa Zabala...
rimategia: Gertu (Oñati).
ti-ttapa ez du bere gain har-
n derrigorrez, aldizkarian adie-
itako erranen eta eritzien eran-
kizunik.
kunde Laguntzaileak: Bera,
tza, Goizueta, Areso, Baztan,
dazubi, Zugarramurdi eta
rako udalak, Bortzirietako
skara Mankomunitatea,
lerrekako Zerbitzu Mankomu-
tea...

GAURKOTASUNEN GAIA

Baztan, Bortziriak eta Malerreka: Zaborrekin zer?

Dauden alternatibak guzien artean ikusi beharko dira



J. I. MARIEZKURRENA
Sunbillaiko alkatea

Labearen alter-
natibaez da ino-
ren gustokoa
sortzen duen kea eta kutsa-
durarengatik. Transferentzia
Biltegia egin eta zaborra
Gongorako zabortegira era-
matea soluzio ona iduritzen
zait, baina horrek ez du erran
nahi soluzio bakarra denik.
Guzien artean, bertze alterna-
tibak ikusi beharko ziren.
Bertzen bildu ginen alkateen
aitzinean Ingurugiro Zuzen-
daria argi mintzatu zen: «*Hor
dugu Arangurenego zabortegia,
posibilidadeen azpitik erabilia, eta
hiru mankomunitadeko zaborra
ez ezik bertze hamarrekoa biltze-
ko kapazidadea duena. Ez du zen-
tzurik bertze zaborteak egiten
gehiago inbertitzeak*».
Materia organikoak ez bali-
tuzte eramanen, hoientzako
zabortegia hemen egin behar-
ko zen, kalte guttien sortzen
duen tokian. Dena den, hau ez
da soluzio hoberena bertze al-
ternatibak egon ezkeror.
Karkar-eko zabortegia ez dut
ezagutzen. Ongi dagoela erran
didate. Hemen holakoa egite-
ko ongi ikusi beharko zen, te-
rrenoa, non jarri, lanpostuak,
turismoa kaltetuko duen...

Oraindik ikusteko dago azkenean zer egiten den



Tomas EZKURRA
Malerrekako Mankom.

Donezteboko Li-
burutegian gai
honi buruz egin
zen Eztabaida Foroa arras in-
teregarria iduritu zitzaidan.
Azken partean, beharbada, ha-
ria pixka bat galdu zen, bai-
nan tira! Holako gehiago egin
beharko ziren.
Coopers&Lybrand-ek eginda-
ko estudioari buruz, zer erra-
nen nizuke bada... Argi dago
hemen ez duela inork laberik
nahi. Bertzalde, Transferentzia
Biltegiaren planteamendua, ar-
gi dago goxoki bat dela. Zabo-
rrak hemendik kanpora era-
manen digutela erran, eta he-
men denak aski gustora!.
Azken finean, bi hoiak dira es-
tudio horrek eskaintzen dituen
alternatibak, Birziklatzea ez da
kontutan hartzen sikiera.
Itxura guzien arabera, Nafa-
roako Gobernuak Transferen-
tzia Biltegiaren aldeko apostu
garbia egin du. Horren arabe-
ra, Materia Organikoekin zer
pasatuko den, ikusi behar.
Zaborraren erdia hemen gel-
ditzin bazaigu, a ze soluzioa!
Momentuz, hiru Mankomuni-
dadeak bildu egin beharko du-
gu eta hor ikusi beharko du-
gu zer komeni zaigun.

Alternatibak zehaztu eta sakonki aztertu ondorioak eta kosteak



Jose R. MASFERRER
'Ecolan' enpresakoa

Donezteboko
Eztabaida Foroa
a interes haun-
dikoa izan zen. Argi gelditu
zen hiru mankomunitadeen
arte bilatu behar zaiola so-
luzioa. Egun batzuk lehenago
izana genuen bilera bat bi
mankomunitade eta Baztan-
go udalaren artean zentzu
horretan. Bertzalde, zabo-
rraren kudeaketari buruzko
zenbait aspektu tekniko ar-
gitzeko ere (Transferentzia,
Konpostatzea...) interesga-
rria izan zen.
Zaborren tratamenduari bu-
ruzko alternatibak sakonki
aztertu baino lehen ezin da
erabaki bat hartu. Argi dago
jendea kontzientziatu egin
behar dela, eta garrantzitsua
dela etxean bertan zaborra-
ren osagai bakoitza bere al-
detik biltzea, dena nahasi ga-
be. Leku bakoitza sortzen
duen zaborraren erantzulea
da, eta alternatiba berdinak
ez dute toki guzitarako ber-
din balio. Toki bakoitzaren
ezaugarriak ikusi behar dira.
Teknikoak bezala, alternati-
bak egokiak zehaztu egin be-
har dira, arduraz eta sakonki
ikertuz bere ondori guziak.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

- Egunero, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.
- Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.
- Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 74 04

IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 17 55 40
- Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekalde Behean.

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitopenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du

BOTA BERTSOA



Nafarroako Euskal Kantu Txapelketa

Alaitz REKONDO

Neurria: Zortziko haundia

Euskal Kantuen Txapelketa honek badu bere garrantzia eta nik behintzat neure buruan hori ez daukat ahantzia kantu zaharrak berreskuratu ta berrien irrintzia lehengo loreak galdu aurretik erein dezagun hazia.

Neska ta mutil, zahar ta gazte Nafarroako hainbat anai gure kultura haunditu nahian umoretsu eta alai euskal kantuen ahotsa nola zabaltzeko izan den gai kantagintzari laguntzen dio ta euskarari ere bai.

Eusko Alkartasuna- ko alkate eta par- lamentarien bilera

Azaroaren 18an Doneztebeko Alkartetxean elkartu ginen zonako Junta Lokal guziak, alkate eta kontzejalekin, Nafarroako hiruko Gobernuako Industria Kontseilariarekin eta Nafarroako Parlamentuan Eusko Alkartasunak dituen parlamentariekin.

Bilera horren helburua Nafarroako Gobernuaren egoera ekonomikoa zuzenean eta lehen eskutik ezagutzea zen.

Ezaguna da, hiru alderdien artean egindako Aurrerakuntza Programaren bitartez, Eusko Alkartasunak Gobernu horretan parte hartzen duela IV. Legealdi honetan (1995-1999).

Udalentzat garrantzia handikoak diren gaiak jorratu ziren bileran, hoienean artean 1996ko Aurrekontuak eta Hirurteko Plana. Azken gai hau dela eta, Administrazio Lokaleko Departamentukoekin bilera egiten da legealdi honetan plana nola banatuko den jakiteko.

Industria Kontseilaria hantxe gurela aprobetxatuz, inguru honetan industriak duen egoera ere aztertu genuen, Alkaiagako Industrialdea, CSI Transformados enpresarena, Lesaka,

Legasa eta Zalaingo lantegien egoera bereziki aztertuz.

Guzi horrerri, errepideen gaia ere gaineratu behar zaio. Eskualdearentzat garrantzia handikoa da Belateko tunelari 121-A eta 121-B errepideen hobetzearekin segitzea. Bera-Behobia tartea moldatzeak premia handia du.

Kargu publikoen banaketa eskualdean eta hilabeteko bileren planifikazioa ere zehaztu ziren administrazio desberdinen elkarlaguntza errazteko, erran nahi baita Nafarroako Gobernu, Parlamentua eta Udalen artekoa.

EUSKO ALKARTASUNA



Alde hemendik!!

Azkeneko hilabete hauetan, Etxalarren Guardia Zibilarren jarrera probokatzaileria (kontrolak herriko plazan bertan, karreteran eta bidegurutzetan kasik egunero, harrokeriaz, gure mugimendu guziak kontrolatzen dituztela demostratu nahian...) dela eta, Etxalarko gazte jendeak zera adierazten dugu:

«Euskal Herrian ez duzue

deus pintatzen, ez gaituzue beldurtuko!! Alde hemendik!!»

ETXALARKO GAZTE JENDEA
(40 SINADURA)



San Miguel auzoa

Euskal preso politikoen gogose grebaren helburuak bultzatu nahian, Leiza eta Larraungo Amnistiaren Aldeko Batzordeek hiru eguneko baraualdia antolatu dute; Araitz, Basaburua, Areso eta Goizuetaren laguntzarekin. Honela, Larraunen abenduaren 1ean hasi (Euskal Herri osoan burutuko den borroka egunean) eta abenduaren 3a bitarte iraunen du, ondoren kontzentrazioa burutuko da bertan.

Beraz, parte hartu nahi baduzu, ostirala arratsaldeko 5etatik igande arratsaldeko 5ak arte iraunen du baraualdiak.

Zure laguntza behar dugu, presoek gure laguntza behar dute.

Izena zure herriko komiteko partaideei edo 'Torrean' eman ezazu.

LEITZA-LARRAUNGO
AMNISTIAREN ALDEKO BATZORDEAK



LESAKA

LEGARRA

EGUBERRIETAKO KANPAINA

*Jokuak
Liburuak eta...
falta duzun oparitxo hori*



Legarra, 9 • ☎ 63 70 30 • LESAKA

ALZURI

☛ Sukalde
tresneria eta
opariak
☛ Landare eta
loreak

Tel.: 63 03 70 • BERA



Egin 95-XI-16

«Cabrón, cabrón
oihukatzen ibiltzen zen
jendea Irurtzango
ferietan egiten genuen
ikatz saltzeko, carbón
hitza zaila egiten
baitzen esateko»

Francisco M. EZKURRA

Eratsundarra. 100 urte

Egin 95-XI-16

«Momentu
honetan, Lesakako
DYAn sei boluntario
gaude bakarrik eta
barrak ongi

hornitzeko 30 edo 35
pertsona behar dira
guttinez»

Geraro TELLETXEA

Bortzirietako DYako ordezk.

D. Noticias 95-XI-15

«Edozer egitea
gustokoa dut, baina
entzuleekin jostatzea
eta harremanetan
jartzea da gehien
atsegin dudana»

M. Karmen IRUNGARAI

Xorroxin Irratikoa

Argia 95-XI-19

♦ **Zer haragi klase saltzen da
gehien, bertakoa edo kanpokoa?**

♦ Nik bertakoa bakarrik saltzen dut.

♦ **Gisatzekoa edo txuleta?**

♦ Udan txuleta gehiago, eta neguan, bietatik
berdintsu.

♦ **Beraz, Goizuetan ez da krisirik
nabaritzen?**

♦ Lehen ez dakit zenbat salduko zen. Ni hasi
nintzenetik ez dut gora-beherarik nabaritu.

♦ **Bi tokiak probatu dituzenez,
non bizi zara gustorago
Goizuetan edo Donostian?**

♦ Goizuetan inolako zalantzarik gabe.

♦ **Zergatik?**

♦ Hemengoa naizelako eta, lagunak eta
familia dauzkadalako.

♦ **Bada haragizko pekatuak?**

♦ Gaur egun ez da pekatuak eta gutxiago klase hortakorik.

♦ **Afalondan, musean edo tabernetan dantzan?**

♦ Biak asko gustatzen zaizkit, lagunak artean bata edo bestea.

♦ **Eroslerik zorrotzenak, gizonak edo emakumeak?**

♦ Emakume gehiago etortzen da, eta exijitza gehiago, berdintsu.

♦ **Zenbat zerbeza edan ondotik hasten zara bertsotan?**


♦ Askotan bat ere edan gabe igoal.

♦ **Ondoen denboraldia bukatu berria da. Aurten ere
konjeladorea bete duzu?**

♦ Denboraldia pata xamarra izan da eta erdia bakarrik bete dut.

♦ **Hiztun ederra izanik, asko kosta al zaizu hain labor
erantzutea?**

♦ Ez, ez. Ederki moldatu naiz.



Simon APEZETXEA

Goizuetako
harakina



- Eraztunak, belarritakoak, pultserak,
kateak, erlojuak...
- Bitxitegian era guztietako konponketak

KANTONBERRI, 8 • TFNOA: 630751 • BERA
MERKATARIAS • TFNOA: 451519 • DONEZTEBE

GRUPO ZURICH



ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 — BERA — ☎ 63 07 63



• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •

Gabonetarako adornoak: bolak, argiak, zintak...

Opariak • Panpinak • Koloniak • Perfumeak

Eztegara 19 • ☎ 63 02 40

BERA

Zure ingurua klase guztiko insektuz
(xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta
arratoi-xagutxo-argitu nahi baduzu, deitu! Gu
arduratuko gara horretaz.

Termita eta Polillen kontrako tratamendua



☎ 63 01 55
BERA

Bera

Ur hornidura momentuz normaldua

Idortearen ondorioz, azaroaren hasieratik gauero moztu dute ura

TTIPI-TTAPA

Idortea etxeetan ere nabaritu da aurten. Izan ere, udaberriaz geroztik euri erauntsi gutti bota ditu eta erreka eta iturrietan nabari da ur eskasia. Herriko ur-depositoa ere, normalean izaten duen ur kopuruaren azpitik ibili da. Horregatik, azaroaren hasieratik gauero etxeetako ura moztu egin da.

Azken asteotan erauntsi gehiegirik egin ez badu ere, egin dituen pixarrak nabaritu dira erreketan, eta momentuz, arazoa berriro okertzen ez bada behintzat, ur hornidura 24 orduz segurtatua dago.

Zalaingo lurra

Zalaparta dexente sortu duen afera da hauxe. Azkeneko udal-



Labiaga ikastolako arduradunak Iruñera joan ziren beren egoera salatzera. Komunikabideek bildu dutenez, DBH (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) ematea behin eta berriz ukatu zaie. Hasiera batean baime-na Zentru Kontzertatu gisa ematea eskatu bazuten ere, orain, bederen Zentru Pribatu gisa ematea eskatzen dute. Gaur egun 53 ikasle dituzte DBHn inolako matrikula legalik gabe.

Argazkia: Egunkaria

batzarreko aktan ageri denez, HBko udal taldeak Zalaingo Parkean desagertutako lurrarekin zer pasatu den galdetu zuen. Aferaz

eztabaidatu ondotik, gaia hurrengo udalbatzarrerako utzi zen, orduan ikusiko baita nola bihurtzen ahal den lurra bere lekura.

Zorionak 'Bai' antzerki taldeari

Inessa de Gaxen lanarekin lortutako arrakastagatik zorionak eman dizkio udalak.

Mikel Tabernak irabazi du Arabako Foru Aldundiaren euskarazko poesia saria

Alkaiagako Mikel Tabernak irabazi du Arabako Foru Aldundiak banatzen duen Ernestina de Cham-pourcin poesia sariaren seigarren edizioa. Tabernaren *Mendea* ren ilunabarrean ize-

neko euskaraz idatzitako idazlana izan da onena bere sailean.

Epaimahaikide izan den Enrike Knorrek adierazi duenez, Mikel Tabernaren lan sari-tuan "originaltasuna eta teknikaren mende-

ratzea" nabarmenak dira.

Eraberean, poesia sozial hutsa ez bada ere, mezu aldetik sozial ukituko gaiak hartu dituela gaineratu du sariketa honetako epaimahaikideak.



Mikel Taberna

ttipi-flash

Nafarroako Euskal Kantu txapelketako

lehen saioan parte hartuko du Ainhoa Agirre eta Saioa Ataunek osatutako bikoteak. 'Iluntze-an' eta 'Eperrak badituzi' kantuak eskainiko dituzte. Ainhoa bakarka ere arituko da 'Xalbadorren herriotzean' kantatuz. Saioa Leitzako zinean izanen da larunbat honetan, arratsaldeko 5etan.

Liburutegia

Karmele Barrena berriki arte Berako liburutegia izandakoa Tafallako liburutegira aldegin zuenetik, liburutegia itxirik zegoen. Behin behin-ekoz, eta oposizio lehiaketa egin arte, Carlos Labrador Deza izanen da liburutegia. Azaroaren 20an hasi zen lanean.

Altzate karrikan

autoak aparkatzea galerazi zutenetik ibilgailuen abiadura haunditu egin dela eta, aurrerantzean abiadura kontrolatuko dela jakinerazi nahi du udalak. Momentuz, radarra jartzea aztertzen ari da.

GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK

Altzate, 5 Tfnoa: 63 00 83 BERA

Errekalde ostatua

Ortiziraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630259 - BERA



BOAN
TAILERRA
CITROEN Banatzailea

AUTO BERRIEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA

63 06 23 • BERA

Lesaka

77azienda plazaratu ziren Bortzirietako Feria Egunean

Makukobordako Luis Olaetxea eta Ierrenbordako Patxi Ubiria izan ziren sari gehien eraman zituzten baserritarrak

AITOR AROZENA

Azaroaren 23an ospatu ziren Bortzirietako feriak. Aurten ere jende aunitz bildu zen eta baserritar dexente izan ziren bere abereak plazaratzera animatu zirenak, guztira 77azienda egon baitziren ikusgai.

Lehiaketan, 53 zaldikoren artean Iriberrri baserriko Aitor Muñoak eraman zuen lehen saria. Bigarrena J. Antonio Andueza eta hirugarrena Zulango gorroko Mattin Etxabidek.

BEHI ONENAK

MAKUKOBORDA ETA IERRENBORDAN

Betaberetan 21 behi eta aretze aurkeztu ziren. Sariet dagokienez, holandesa arrazan, Makukobordako Luis Olaetxeak eskuratu zuen lehen saria, Biurgaraiko Salvador Goiak bigarrena eta Abaskeneako Angel M^a Altzugarra hiru garrena. Suizetan lehendabiziko hiru sariak Luis Olaetxeak eraman zituen Makukobordara. Haragitako behietan, berriaz, gauza bera egin zuen Ierrenbordako Patxi Ubiriak, lehen hiru sa-



Azken egunetan egin zuen eguraldi goibel eta euritsua alde batera utzi eta eguzki goxoa izan zen Feria Egunean. Guztira 77azienda aurkeztu ziren, gehienak zaldiak eta behorrak

Argazkia: Aitor

riak berak etxeratu baitzituen.

Azkenik, 3 ahare aurkeztu ziren eta bi lehendabiziko sariak Blas Goizuetak eraman zituen bitartean, hirugarrena, Iriberrriko Aitor Muñoak sakele-ratu zuen.

Feria Egunak, ordea, berte gauza aunitz eskaini zituen. Honela, aurtan lehen aldiz eskulangileen erakusketa izan da Euskara Batzordearen eskutik. Eraberean, kartzelan dauden preso oroimena ez zen faltatu, Senideak erakundeak plazaratuta.

Argazki lehiaketako lehen saria Hondarribiara joan da

Hondarribiako Jose Manuel Marruedo eta Txaro Poloren izenezan igorritako 'Baztan' argazkiak irabazi du Beti Gazte elkarteak bortzgarren urtez antolatutako argazki lehiaketaren lehen saria. Bigarren saria, Jose Antonio Unzurrunzagak eskuratu du, 'Urbia' izenburuadaraman argazkiarekin. Kirol argazki onenari emandako sari berezia Juan Angel Ordoki lesakarrarentzat izan da, 'Contraluz' izene-

ko lanarengatik. Guztira, hogeita hamaka argazkilarien larogeiabortz argazki aurkeztu dira lehiaketa honetan, aitzineko urteetan baino zerbait guttiago. Halere, antolatzaileek adierazi dutenez, korreoarekin arazoak izan ondoren epezkano zenbait lan ailegatu zaizkie.

Argazki guzti hauek ikusi nahi izanez gero, Beti Gazte elkartearen dagoen erakusketa laister bisitatu behar da, igandean ixten baita.

ttipi-flash

Erdera hutsean

daudela eta, azken aldian, udaleko aktak ez dituzte siñatu HB eta EAKo zinegotziek.

Nafarroako

Euskal kantu txapelketako

lehen saioan parte hartuko du Alaitz Rekondo eta Erika Lagomak osatutako bikoteak. Larunbatean Leitzaan, 'Xalbadorren heriotzean' eta 'Adio ene maitea' kanta-tuko dute.

Andra Mari erresidentziako

lau langile berriak Begoña Arakues, Consuelo Iturria, Dolores Otxoteko eta Pilar Etxarte izanen dira. Guztira 41 lagun aurkeztu ziren lehiaketara.

Argazki gerra

Alkateak, bere ize-na begipuntu baten barnean ageri zen argazkia HBkoei erakutsi ondoren, hauek, azken ple-noan, Lesakako bi presoan argazkia erakutsi zioten alkateari, bere iritzia eman zezan.

LORA DENDA

TXIRULA

Bitria LESAKA

627542

bitxikeriak • opariak • eskulangintza

ZALAIN

J A T E T X E A

EGUNFKO MENUA ETA KARTA

Zalain Auzoa

63 11 06

BERA

Boda eta banketeak ematen dira

IRU BIDE

ERRETEGIA

Tfnoa: 637127

LESAKA

ETXALAR

Udazken epela eta ehizaldi eskasa izan da aurten

Hala ere, iazkoa baino hobea izan da

PELLO ETA ALBERTO

Behar bada, oraindik ere uso franko etorri gabe gelditu da iparraldean, nahiz eta ehiza denboraldia bukatu. Gerardo usazaleak hala uste du. Erranak badu itxura, ehiza denboraldia bukatu arte ez baitugu, ez euririk, ez elurrik, ezta kazkabarrik ere ikusi, gehienetan ohi den bezala. Bazka ere azkarki eman du aurtengo haritzak nahiz bagoak. Horrela, eguraldi epel eta beroarekin usoa lasai ibili da eremu haue-
tan. Ezin ukatu ehizan izan dutela horiek eragina, noski, biraka ibili omen da eta usoa, hegoaldera datorrela maiz gibelera eginez. Horrez gain, betiko etsaiak izan dituzte usa-



Bertze gauzatan bezala, hilerrian ere ikusten da gure ohituen aldaera: lehen eguneko loreak paratzen baziren, orain lurrean sartutako landare loratuek apaintzen dituzte hilobiak

zaleek, Gaztainlepo eta bertze inguruetako tiroak, etabar. Hala ere, ona ez izanagatik, iazkoa baino hobea bilakatu da aurtengo denboraldia: 93 dozena uso harrapatu baitituzte aurtengo; iazkoak, berriz, ez ziren 60 dozenata-

ra ailegatu.

Herriko Etxe zaharra moldatzeko laguntza

Udalak herrikoetxe zaharra moldatzeko laguntza eskatu dio Gobernuari. Ez da lehenbiziko aldia,

proiektua lehendik egin baitago, 22,5 milioiko aurrekontua duena. Teilatuaz gain, etxearen egitura bera segurtatu eta berritu beharra izan behar du, etxeari eusten dioten pilareak ez daudela ongi eta.

Zimeldiko errekarra

adarrak botatzen dituztela eta, eremu horretan egurra egiten dutenei oharra igorriko die Udalak, erreka errespetatu dezatela eskatuz.

Igerilekuetako sarrera sariak

Heldu den udarako sarrera sariak erabaki ditu Udalbatzak dagoeneko. 7 urteak arte, dohainik. 7-10 urtekoentzat: 1.000 pzta. hileko, 1.300 denboraldiko, 200 eguneko. 11-16 urtekoentzat: 1.800 hileko, 2.300 denboraldiko, 300 eguneko.

16 urtez goikoen-
tatzat: 3.500 hileko,
4.500 denboraldiko,
500 eguneko.

«USOA»

NEKAZARI KOOPERATIBA



Ganaduarentzat
pentsurik egokiena

Tfnoa: 63 52 14

ETXALAR

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa
Altzate 28 • BERA

XATURETXEA



Tfnoa: 63 70 27 LESAKA

KOXKILA OSTATUA



Zarandia, 4 - LESAKA



© 635290
ETXALAR

HERRIKO OSTATUA

Jatetxea

*Lagun artean
gora-gora egoteko
leku egokia*



ALBAITARITZA KLINIKA

ORDUTEGIA

9,30etatik 1etara eta 5etatik 8etara
Larunbatetan 9,30etatik 1etara

Albistur 51, ☎ 627660 LESAKA



Sei hilabete trenbidetik ibili ondotik badugu zubi berria Berrizaunen

Berrizaundarrak kexu agertu dira, bertzalde, saneamendu fosak botatzen duen usaiaekin

OSKAR TXOPERENA

Sei hilabete semaforoaren zain eta trenbidetik ibiliz pasatu ondotik zubi elegantea plantatu digute Berrizaunen. Itxura batez, dexente xamar egin dutela iduri du eta Molineako sarrera akautzen dutenean oraindik hobekiago geldituko da seguras-ki. Bazen aspaldian beharra eta hortxe daukagu.

Berizaunen segituaz, bigarren aldiz eraman dute udaletxera bere kexa auzotarrek. Bertan erraten denez, sufritu ezinak dira saneamendu fosatik ateratzen diren usaia. Udalak mantenimenduz arduratzen den Nilsari eman dio kexaren berri.



Akautu dute azkenik Berrizaungo bi aldeak elkartzen dituen zubia. Ez da inolako inauguraziorik egin. Azaroaren 11n ezkondu ziren Igantzin German eta Asun. Hondarribira doazi bizitzera

Argazkia: OSKAR



Dantzariak

Abudo lanean has-tekoak dira berriz ere herriko dantzariak, abenduaren 13an, arratsaldeko 6,30etan, hain zuzen. Hasi baino lehen, berendu bat egin behar omen dute dantzariak eta lanean ari behar duten guz-tiek. Abenduaren 2an izanen da, arratsaldeko 5etan.

Eraikitze- moduko lurrak

Epea ireki du Uda-letxeak herritik kan-pora dauden terenoak eraikitze- modukoak izan daitezen eskatze-ko. Ez omen da gauza segurua, baina horren beharrean dagoenak Udaletxean eska de-zala, zinegotziak tra-mitatu ahal izateko.

Azaroaren 18ko rock kontzertu eta antzerkia arrakastatsuak suertatu ziren

Azaroaren 18ko rock kontzertuaren emaitzak txukun xamarrak izan omen zi-ren, eguraldia kontu-tan hartuz gero. Berrehun lagunetik

goiti sartu ziren ba-rrenera eta jende de-xente ibili omen zen herrian barrena ere.

Egun berean egin-dako antzerki ema-naldia ere, bikain ate-

ra zen. Ehun lagune-tik goiti hurbildu zi-ren Zahar-Etxera, Kollins Clow taldea-ren 'Bikingoak' an-tzeslana ikustera, hau-rak gehien bat.



EKAITZA kafetegia

GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA

Plaza Berria, 13
948 - 62 75 47
LESAKA

Lagunekin
elkartzeko
toki egokia

SAROB

okindegia



SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA



ORDOKI ALTZARIAK

Estilo guzietako mogleak

Kalitatea prezio egokian

35 urteko esperientzia zure zerbitzura

- Jangelak, tresilloak, gazteendako mogleak, auxiliarrak...
- Paretako armarioak, zure logelarako egokiak eta neurri-eginak
- Kutxa, platero, eserleku, etabarretan aukera zabala.
- Mogle zaharrak eta zaharberrituak

ERAKUSKETAK: Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26

SALMENTAK: Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 637034 - LESAKA

Arentza

Kultur Astea 'arrakasta haundiaz' ospatu zen antolatzaileen ustez

Ander Agesta eta Rafael Errandonea, bertzalde, Egiako pilota txapelketako finalerdietara ailegatu dira

GARBINE ETA ELIXABET

Azaroaren 10, 11 eta 12an egindako Kultur Asteaz hagitz balorazio ona egin dute Ekaitza elkarteak. Ortziralean txiste afaria ospatu zen elkartearen eta hiru leitzar eta Ramon Seguroa aritu ziren txiste kontari. 30 lagunek afaldu zuten eta txiste kontalariak bere borondatez etorriak zirenez, oso ongi bete zuten beraien lana. Bideo emanaldian ere jende puska bildu zen. Larunbat goizean haurrentzat tailerrak izan ziren eta arratsaldean antzerkia. Gurasoek erran digutenez, haurrek hagitz ongi pasatu zuten. Larunbat gauean tortilla lehiaketa ospatu



Txiste afaria, tortilla lehiaketa eta haurrendako tailerrak, Kultur Asteko ekitaldietako batzuk



zen. Lehendabizikoa Elena Larralde izan zen, bigarrena M^a Jose Oskoz eta Izaskun Maiz eta hirugarrena Marta Iturria.

Igande goizez, dantzaldia izan zen herri-

ko plazan. Ordu bat t'erdi iraun zuen dantzaldian Elizondoko dantzari eta txistulariak eta Iruñeko gaite-roak aritu ziren.

Ordainketak

Udaletxetik adiera-

zi dutenez, herritarrek bertan galdetu behar dute zein Aurrezki Kutxetan ordaindu behar den azaroko gasaren instalazioa eta hiltzaren berriz, uraren kontua ordaintzeko.

Pilota solas

Ander Agesta eta Rafael Errandonea Egiako binakako pilota txapelketa jokatzeko ari dira. Finalerdietara sailkatu dira. Banaka ere jokatzeko ari dira biak. Azaroaren 18an Anderrek Olaizolaren kontra 6-18 galdu zuen lau t'erdien barnean. Rafak, aldiz, Espainiako lehen mailako txapelketaren barnean, Logroñon jokatuako partiduan 18-12 irabazi zion Gabarriari.

Xorroxin

Gabina Goiak Xorroxingo berriemaileak, norbaitek zerbait saldu edo erosi nahi badu berekin kontaktuan jartzea eskatu du. Bere telefonoa, 634126 da. Astearte eguerdian aritzen da.

LABEZAR
© 631076 • BERA

OKANE
HARATEGIA • URDAITEGIA
Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA

KIROLAK ZELA
Altzate 6, ☎ 63 05 98
BERA

EROSLE
LESAKA
Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena
Frexkuena
zugandik
hurbilago
Bittiria, 67 - ☎ 637264

FUNERARIA ZERBITZUAK
DONEZTEBEn
**MALDAERREKA, S.L.**
24 orduko zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irongo ospitaletatik edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE

**LANCHAS**
• Parketak - Tarimak
• Kutxillatzea eta bernizatzeak
• Estaldura Orokorrak
Bera ☎ 630735
Irun ☎ (943) 622305

Sunbilla


Sei hilabeterako Guatemalara joan da Aitor Zugarramurdi

Errefuxiatuei eta behartsuei laguntzea da bere asmoa

IXABEL ETA JOSUNE

Azaroaren 16an, Aitor Zugarramurdi, 22 urteko sunbildarra bertze leitzar batekin Guatemalara joan zen sei hilabete pasatzeko asmoarekin.

Datozen sei hilabeteetan beraien intentzioa behartsuei laguntzea eta edozein lanetan aritzea. Badirudi, batez ere errefuxiatuekin arituko direla. Guatemalara ailegatu eta aste bat beranduago deitu du Aitorek etxera, ongi daudela erranez. Ongietorria bertze zortzi euskaldunek eman omen zieten eta momentuan hiriburuan bazeuden ere, bihar-monean ateratzekoak ziren beraien destino-etara.



Azaroaren 16an joan zen Guatemalara Aitor Zugarramurdi

Postre lehiaketan sunbildarrak sarituak

Behinpin taldeak antolatutako Malerrekako II. Postre Lehiaketanbi lehendabiziko postuak sunbildarrak lortu zituzten.

Garaileak Pili Arretxea eta Irene Aioroa izan ziren. Hauek, etxe baten itxura zuen tarta egin zuten, esne-gaina eta txokolata

erabiliz. Bigarren postua, berriz, Anabel Almandozentzat izan zen. Sunbildar honek, arroznea prestatu zuen.

ttipi-flash

Adi Sunbillako gazteak!

Igande honetan, abenduak 3, hama-lau urtetik goitiko sunbildarrentzat biler bat izanen da frontoian, arratsaldeko 3etan. Gaia, kultur talde bat egiteko asmoa plaza-tzea izanen da.

Olentzero Eguna

Olentzero eguna gainean dugu eta prestakuntza entsaioak igande honetan, abenduak 3, hasiko dira, goizeko 12etan. Arantxaren lokalean egingen dira aurtan ere entsaioak.



SANTAMARIA Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



LIZUN

GAZTANDEGIA
Etxeko Ardi Gazta

Petxenekoborda
Tfnoa: 45 08 62
SUNBILLA

ILEA PAINDEGIA

"ARTAZI"



Zure ilea, zure gustora apaindua

Gindal Ibiltokia, 3 - 1.D
Tel. (948) 45 08 44

31791 SUNBILLA

MariCruz
LENTZERIA

Parrokia 11, Tfnoa: 45 01 12 - DONEZTEBE

SALDIASko zerrategia

Eraikuntzarako estruktura eta enbalajeak

Zubizarra, © 615108 eta 615044 • SALTAS

Doneztebe

Etxebizitza Zainduen Patronatuko estatutuak onartu dira

Konpondu da San Miguel auzoko ur jarioa

TXEMA ALDABE

Zaharrendako Pisu Zainduen Patronatoa zuzenduko duen estatutu-proiektua onartu du udalak.

Zugarramurdi eta Zabala zinegotziek, patronatu honen funtzionamenduak Herriko Etxean izanen dituen eragin ekonomikoaz duten zalantzak agertu zituzten.

Zugarramurdiren ustez, ez dago portziorik Udalak erakunde honetan dituen botuen eta biztanleen artean eta proiektuaren kontra eman zuen botua, Zabala abstentitu egin zen eta gainerako 7 zinegotziek aldeko botua eman zuten.

Alkateak, proportzioa gordetzen dela adierazi zuen eta horren arabera, Doneztebek sei apartamentu izanen dituela gaineratu zuen M^a Jesus Ganboa zinegotziak.



Zaharren Etxebizitza Zainduen Patronatoko estatutuak onartu dira

Argazkia: TXEMA

San Miguel auzoko ur jarioa konpondua dago

Azken boladan izan dugun idortea adle batetik eta herriko hodi edo tubo sarean zegoen ur jarioak kontuan hartuz, zenbait gauez ura moztu zuten herrian, ur depositoa hutsutuko zenaren beldurrez. San Miguel auzoko aberia konpontzeaz gainera, herriko ur sare guzira begiratu da.

Bertzaldetik, badi-rudi tarteka bada ere, euria lagun dugula, beraz, oraingoz ur-mozketak akitu dira.

San Miguel auzoko karrika partikularren moldaketa eta auzia ere, bide onetik doia-ela dirudi, auzotarrak eta Herriko Etxea dagoeneko bi aldiz elkartu baitira.

Jubilatuaren estatuko sukaldia

berritzen eta ego- kitzen ari dira. Salvador Arozena Arkupeko ordezkariak lan hauek egitea beharrezkoa ikusten du, egoitzaren erabilera haundiagotzeko eta bazkide gehiago lortzeko. Lanen urrekontua 1.614.539 ptakoa da eta udalaren laguntza 4410.182 pta.koa.

ttipi-flash

Erreka Guraso elkarteak

eskaturik Inato Irazoki etorbidean marra horiak margotuko dituzte zolan eta Apeztegia aroztegiaren gibelko aldean bizikletak uzteko egokitu-ko ditu.

EHNEk Udalar

azaldu dioenez, aurtengo idortek belardietan bazka guttitzea ekarri du eta %61,1ko kalteak eragin ditu. Hau dela eta, Nafarroako bertze eskualdetan egiten den bezala, hemengo nekazariei laguntza ematea eskatuko du udalak.

Nafarroako Euskal Kantu txapelketako

lehen saioan herriko bi taldek parte hartuko dute. Kurkuxa taldeak 'Lurra' kantatuko du eta Doneztebeko taldea ere kantari arituko da larunbat honetan Leitzan. Finala Donezteben izanen da abendua- ren 16an.



TELLETXEA
MOBLEAK

Moble modelo berriak
Burdin eta zura konbinazioak

Rosa Seminario z/g • 45 02 58 • DONEZTEBE

Malerreka

Iturengo Kultur Egunak ospatuko dira abenduaren 7tik 9ra

Ortziralean, herriko leku izenei buruzko solasaldia emanen du Andres Iñigok

IBAN ISASI

Aurtengoan ere, ekitaldi ugariz beteta eta aisialdia betetzeko aukera ezin hobe eskañiz datoz Kultur Egunak.

Abenduaren 7, 8 eta 9an ospatuko dira eta dagoeneko dena ia prest dago, azken ukituen faltan. Iaz bezala errifak salduko dira, sariak: afaria Elgorriagako Hilarion jatetxean eta janariz eta gozokiz betetako saskia.

Egitarauari dago-kionez, ortzegunean, abenduak 7, 8etan Itoizi buruzko solasaldia. 9etan talo jatea eta 11etan, zinema eta 'Tximeletaren hegala' pelikula ikusi ahal izanen da.

Abenduaren 8an, ortzirala, 11etan triki-



Eratsungo Francisco Ezkurak eta Sunbillako Graciana Jorajuriak ehun urte bete dituzte. Biak Iruñan bizi dira gaur egun.

tilariak herrian barna, 12,30etan Iturengo leku izenei buruzko hitzaldia, Andres Iñigoren eskutik. 4etan pala txapelketa. 7etan mustxapelketa eta 11etan, musika kontzertua, *Hau Marka, SFO*

eta bertze talde bat.

Abenduaren 9an, haurren eguna ospatuko da. 10etan zaldiak eta pottokak. 4,30etan haurrendako zinea eta ondotik, berendua. 5etan pala txapelketa- ren finala eta 8,30etan

Gontzal Mendibilen kantaldia Aurtitzen. 9,30etan herri afaria. 12etatik aitzinera dantzaldia *Etzakit* taldearekin.

Egin mus txapelketa

Aurtizko ostatuan

ttipi-flash

♦ Narbarte herri-lurren

egoera juridikoari buruzko ikerketa egiteko 2.300.000 pezetako gastua onartu du Nafarroako Gobernuak. Milioi erdi aurtengo aurrekontuetan sartuko litzateke, eta gainerakoa, datorren urtekoan.

burutu da eta Iruñeko finalera Sabino eta Joseluis joanen dira.

Postre lehiaketa

Saria jaso zuen Beñat Elizalde 7 urteko iturendarrak, urtebetetzeko bizkotxoarekin.

elkarriketak guztion laguntza behar du

Gero eta gehiago dira Euskal Herrian bakea lortzeko biderik egokiena elkarriketa eta akordioa direla uste dutenak.

3.000 bazkide baino gehiago dituelarik **elkarri** gizarte mugimendua lanean ari da egunero asmo hori egia bihurtzeko.

baina ez da nahikoa

Elkarriketak guztion laguntza behar du. Zuk ere laguntzeko aukera duzu.

elkarri

Moztu kupoi hau eta helbide honetara bidal ezazu: **elkarri**, Poeta Lizardi enparantza 2, tarteplanta. 20400 Tolosa

- ☐ Bai, **elkarri**ren laguntzailea izan nahi dut. Hileroko kuota (14 kuota urtean):
☐ 1.300 pzta ☐ 2.000 pzta ☐ 5.000 pzta ☐ 10.000 pzta
 Aportazio bakarra:
☐ 10.000 pzta ☐ 25.000 pzta ☐ 50.000 pzta ☐ 100.000 pzta
 (Laguntzaile guztiek **elkarri** eta **elkarrikasi** aldizkariak dohainik jasoko dituzte)
- ☐ Bai, **elkarri** (hilabetekaria) eta **elkarrikasi** (trimestrala) aldizkariak etxean jaso nahi ditut. Ordaintzeko era:
☐ 4.000 pzta (urtean behin) ☐ 1.000 pzta (3 hilabete behin)
- ☐ Bai, **elkarri** gizarte mugimenduari buruzko informazioa jaso nahi dut (kasu honetan ez itzazu bete bankuari buruzko datuak)

Izena Abizenak
 Helbidea Herria
 Herrialdea Posta kodea
 Telefonoa
 Banku edo aurrezki kutxa
 Sukurtsal helbidea
 Sukurtsal zkia Kontu zenbakia

Malerreka

Zaharren Etxebizitza Zainduetan sartzeko izena ematen ahal da

Horretan interesaturik daudenak, abenduaren 1etik aitzinera deitzen ahal diote Gizarte Laguntzaileari

TTPI-TTAPA

Donezteben egiten ari diren etxebizitza zainduetan sartu nahi dutenendako izena emateko epea abenduaren lehenean irekiko da. Etxebizitza hauetan sartu ahal izateko pentsionista edo jubilatua izan behar da. Halere, Malerreka Gizarte Zerbitzutik adierazi dutenez, zenbait kasu berezitan sartu ahal izanen da. Eraberean, Patronatoa osatzen duten herrietako bizilaguna izan behar da. Gogoratu behar da Malerreka eta Bertizanako herri guzietan osatzen dutela Patronatoa, Sunbilla eta Oieretik ezik. Azkenik, eskaera egiten dutenek bere buruz baliatzeko gauza izan behar dute.

Informaziorako edo eskaerak egiteko Mankomunitatearen bulegora joan behar da edo 451746 telefonora deitu (Begoña).



Elgorriagako Hilario Sukilbide eta Sunbillako Rosa Urkijok osatu zuten Malerreka postre lehiaketako epaimahaia

Bertizko Natur Parkeko erakusleta gelak berritzeko proiekturako 15,8 milioi zuzendu ditu Nafarroako Gobernuak

Nafarroako Gobernuak, Bertizko Natur Parkeko erakusleta gelak berritzeko proiektua egiteko 15,8 milioi pezetako gastua egitea onartu berria du. Bortz milioi aurtengo aurrekontuetan sartuko dira, eta gainerakoa heldu den urtean.

Oinarritzko lana jauregiko bi gelen berritzatzea izanen bada ere,

jauregitik dorre berri-
ra arteko espaloiko lanekin ere segituko da. Eraberean, bertze lanak ere egingen dira, hara nola, jauregiko hegoekialdeko uraren biltzea eta bideratzea, elektrizitaterako arketaren eraikuntza, baratzera joateko oinezko eta ibilgailuendako atearen zabaltzea, laku gaineko zubian ba-

randak paratzea eta lorategietan kontrolerako txabola bat egitea. Teilatuko kañerien junta ere moldatuko dira.

TURISMO MAPA

Bertizko Turismo Partzuergoak abenduan argitaratuko du Baztan-Bidasoako mapa turistikoa.

1:50.000 eskalan egina dago eta zonal-

DYA Eguna

Nafarroako DYA erakundearen patroia San Frantzisko da eta horregatik, abenduaren 2an, larunbatean Donezteben ospatuko dute aurtengo ospakizuna. 12etan istripu erreskate baten simulakroa egingen dute Bordaxoko aparkalekuan. Ongietorriaren ondoren, Nafarroa osotik etorritako 100 DYA kideen bazkaria Elgorriagako Hilarion jatetxean egingen da.

deko baliabide turistikoak eta Partzuergoaren asoziatuak agertuko dira. Maparen gibelaldean, zonaldeko xehetasunak, ohiturak, kultura eta ekosistema ezberdinei buruzko informazioa agertuko da.

Maparekin batera banatzeko Zerbitzu Gida egingen da, bertan asoziatuen zerrenda egonen delarik.



BERTIZKO TURISMO PARTZUERGOKO MERKATARIEN ELKARTEA

Partzuergoko plaka ikusten duzun dendetan zure erosketak egiteagatik, **Torremolinosera** aste bateko **3 bidai** bikoitzen zozketan parte hartzeko aukera izanen duzu

3 izarreko hotelean, mantenu osoz eta desplazamendua hegazkinez.

Bidaia 1996ko urtarrila-otsailan izanen dira. Zozketa 1996ko urtarrilaren 15ean egingen da.



duten dendetan konfida ezazu!

Goizueta

Agustin Narbartek irabazi zuen Oilagor Txapelketa

Azaroaren 19an burututako Herri Olinpiadak, bestalde, arrakasta ikaragarria lortu zuen

ESTEBAN AROZENA

Azaroaren 18an Basauntz elkartek antolatutako Oilagor txapelketaren bigarren edizioak irabazle garbia izan zuen, Agustin Narbarte ehiztari amorratuak hiru oilagor herriratu baitzituen bost ordu luzez mendian ibilitakoan. Bigarren sailkatu zenak bat harapatu zuen eta gainerakoek alerik ez.

Txapelketan zehar inolako arazorik ez izan arren, antolatzailearen bat mindu xamarra agertzen zen bukaeran hain partaide-tza murrizaren aurrean. Basauntzeko komisiko batek esan zi-



Agustin Narbartek hiru oilagor herriratu zituen

Argazkia: Xabier Mikel Uitzu

gunez, herrian 30 oilagor ehiztari inguru daude eta lehiaketan bostek bakarrik izena ematea mingarri xamarra omen da lanean jotake aritu denarentzat.

Herri Olinpiadak

Umore Onaren antolakuntzapean hilaren 19an ospatutako Herri Olinpiadak arrakasta ikaragarria lortu zuen aurten ere. Ohikeriei ihesi egin nahian ia urtero prueba berriak plazaratzen dituzte antolatzailerik, eta esan behar da aurten betebetan asmatu zutela, partaideek eta ikusleek ere oso pozik baitzeuden lanak bukatutakoan. Esan behar da

sei taldek parte hartzen zutela, eta Andoni Etxenike, Mikel Elizegi, M^a Jesus Zabala, Juan Tomasena, Agustin Perez eta Ramon Lujanbiok osatutakoa suertatu zela irabazle. Garaileek eskuratutako sariez gain, bazkaltzera gonbidatu zituen Umore Onak partaide guztiak.

Egin mus txapelketa

Jose Javier Taberna eta Joxean Salaberroa, Juan Antonio Loiarde eta Manolo Aizkorbe bikoteek ordezkatu dute gure herria Eginen mus txapelketa nazionalan. 12 bikotek parte hartu zuten Umore Ona elkartea jokaturako kanporaketan.

Areso

Gurasoek antolatutako festa abenduaren 8an

'Zirko Ttipia' taldea arituko da plazan

JUANA M^a SAIZAR

Guraso elkartek ia bezala festa bat antolatu du abenduaren 8an. Meza ondoren, hamaiketako izanen da plazan talo eta pintxoekin. 12etan, Zirko ttipia taldea arituko da plazan. Arratsaldean, herriko dantzariak saio bat eskeiniko dute eta segidan trikitilari taldearen emanaldia izanen da. Azkenik, txokolata banatuko da.



Aresoko sokatira taldea gogoz hasi du denboraldia

ttipi-flash

Egin mus txapelketa

Pake-Toki elkartearen ospatu zen eta sei bikote apuntatu ziren. Josemanuel Olazabal eta Ignacio Bengoetxea suertatu ziren txapeldun, joan den urtean bezalaxe.

Industrialdean hainbat lapurreta egin dira pasa diren egunetan.

Babes Ofizialeko

etxebizitzaren trami-teak martxan jarri ditu udalak eta terrenoen nagusiekin hitzegiten hasia da.

Leitza

Kantu txapelketaren saioa larunbatean zinean

Hemezortzi talde, bikote edo bakarlari arituko dira, horietatik sei leitzarrak

JOSEBA AZPIROZ

Abenduaren 2an, arratsaldeko 5etan, nafarroako Euskal Kantu Txapelketaren bigarren saioa izanen da herriko zinemaren. Bertan hemezortzi talde, bikote edo bakarlari arituko dira kantari eta hauetatik sei Leitzakoak: Txalaparta taldea, Ainara de Miguel, Urkaitz taldea, Tribua taldea, beste talde bat eta beste bikote bat. Txapelketaren finala abenduaren 16an Donezteben ospatuko da.



Liburutegirako dauden asmo eta intentzio berriak azaldu ziren obra egin ondoko inaugurazio ofizialean

Argazkia: JOSEBA

Berritu ondotik, Herri Liburutegia berriro zabalik

Azaroaren 17an, obra ondorengo Herri Liburutegiaren inaugurazio ofiziala egin zen. Nafarroako Gobernua (bere lehendakariaren bidez) gonbidatua bazegoen ere, ez zen inor azaldu. Honek Udaleko ordezkarien eta liburutegiko arduradunen haserrea sortu zuen, "abisurik

eman gabe ez azaltzek, edukazio eta errespeto eza nabarmen-tzen duelako". Herriko eskola, elkarte, herri talde, etabarreko 23 ordezkari aditu zizutuzten liburutegirako dauden asmoak, alkatueak eta Jose Luis Huartek azalduta.

Alde batetik, liburutegia kategoriz igo-

tzeko eskatuko dute, horrek aurrekontu handiagoa suposatuko baiduke eta, beraz, material gehiago. Kontutan hartu behar da Hezkuntza Erreforma delata, Leitza zonaldeko gunea izendatua dela eta honek eskakizun eta behar gehiago sortzen dituela; materiala aldetik aipatu

den bezala, eta ordutegiaren zabaltzea bestetik. Beste aldetik, egoera soziolinguistikoa kontutan hartuta, urte bakoitzean Liburutegien Saretik bidalitzen dituzten liburu-ruetan (682 199ean), euskaraz jasotzen diren kopurua handiagoa izatea eskatuko dute.

ttipi-flash

Rock kontzertua

Abenduaren 7an, gaueko 10etan, Torrearen elkartearen tabernan *Laukitik ihes* eta *Berpiztu* taldeen kontzertua izanen da. Borondatea eskatuko da.

Nekazal Ganbarako

idazkariak jakinarazi digu FEOGA-koak inspektzioa egitera etorri behar dutela Nafarroara abenduaren 13, 14 eta 15ean. Erakunde hau, haragitarako behi eta zekorrenatik dirulaguntza ematen duena da. Inspektzio hauetan dirulaguntza eskatzeko aitortutakoa egia dela eta Erregistro Liburua behar den bezala bete da goela ziurtatzen dute. Hori horrela ez bada, isunak jartzeaz gain, dirulaguntzak kentzen dituzte. Baserri guzietara joanen ez badira ere, zurea izan daiteke horietako bat.

**GAZTELU
ITURGINTZA**

KALEFAKZIOA

Elgoien 32
Tfnoa: 51 00 86 •
LEITZA



**Edozein pisu mugitzen dugu
Pabilioiak muntatzen ditugu**

BULEGOA:

Sebastian de Erratzu, 7 behea • IRUN
Tfnoa: (943) 61 87 24
Tfno Mugikorra: 908 - 77 54 57

GRUAK:

Estación, z/g • IRUN
Tfno Mugikorra: 908 - 67 85 84



TXINGUDI

Pinturak

Pintura orokorrean, Gotelet, pikatzeak, lakatzak, bernizatzeak...
Tel. eta Faxa: 943. 64 44 62 • HONDARRIBIA

Baztan

Zozaia eta Almandoz arteko errepide zati berria zabalik dago

Proiektua akitzeko Belateko eta Almandozko tunelak zabaltzea falta da. Heldu den urtean sasoi honetarako izanen da hori.

JOSEBA IGARABIDE

Zozaia-Almandoz tarteko errepide berria azaroaren 22an ireki zuten. Modu honetan, errepide berriak dituen 13,3 kilometroetatik 6,5 km zabaldutuzte, 1,7 km Arraizko Benta eta Gurutzeko bihurgunearen artean, 2,6 km Almandozko zeharbidearenak eta 2,2 km Berroeta eta Zozaia artean. Bertze bi zati gelditzen dira ireki gabe, Almandoz eta Belateko tunelak, hain zuzen ere. Heldu den urteko uztaila eta urrirako zabaltzea espero da.

ORDUKO 80 KILOMETRO

Lanak 9.234 milioi pezetan adjudikatu ziren Belateko lanak. Orduko 80 kilometrotan ibiltzeko diseinatu dago errepidea eta maldarik haundiena %8a izanen du. Tuntletan, %2koa da maldada. Errepideak 14 metroko zabalera du, 3,5



Zozaia-Almandoz errepide tartearen irekitze ofizialera Nafarroako Gobernuak eta Baztango agintariak agertu ziren.

metroko hiru bide eta metro eta metro t'erdiko bazterrak.

2.217.000 m³ lur mugitu behar izan dute lan hauek burutzeko. Errepidea bukatzean, Arraizko bentetik Almandoz artean orain baino bortz kilometro gutiago egin beharko dira. Tarte hori pasatzeko, kamioiek ordu erdi gutiago beharko dute eta autoek, berriz, 20 gutiago.

Pantxo Lazaro, Elizondoko alkate izana, hil da

Francisco Lazaro Gorostidi *Pantxo*, 1949 eta 1952ko legegaldietan Elizondoko alkate izandakoa azaroaren 21ean hil zen, 89 urte zituela.

Elizondoko Dolatxeako semea, 1929an Bartzelonan egin zen Erakusketa Unibertsalean parte hartu zuen Baztango mutildan-

tzari bezala. Eraberean, Elizondoko abesbatza 1942an eta *Recreo* musika banda sortzen lagundu zuen.

Pilotari bikaina ere izandakoa da Pantxo Lazaro. Luzean, frontoian, trinketea eta laxoan jokatu zuen bere garaian. Pertsona aski ezagunak utzi gaitu oraingoan.

ttiipi-flash

❖ **Lekarozko** insitutuak milioi batetako dirulaguntza jaso du Nafarroako Gobernuak sailatik 'Finanzieroa eta enpresa zuzenbidea' izeneko materiala euskarara itzultzeko.

❖ **Eskualdeko hiltegiko** lanak Lekarozko Harri-lan enpresak eginen ditu 61 milioi pezetatan.

❖ **Erratzuko** Kultur Ihardunaldiak bukaera emateko Egaña eta Lizasorekin egin zen bertso afarian 46 lagun bildu ziren. Ihardunaldi arrakastatsua izan da.

❖ **Egur-loteak** Azaroaren 23tik abenduaren 4ra Berroeta, Almandoz, Ziga, Irurita, Lekaroz eta Arizkongo egur-loteak markatuko dira.



JATETXEA

Tfnoa: 580101
Santiago 1
ELIZONDO

Galarza

Eskisaroi
Jatetxea

Jaime Urrutia, Tfnoa: 580013
ELIZONDO

Baztanen...



LOREDENDA • GARDEN CENTER

ESTHER FUNERARIA

Hilkutxak • Hilautoak • Eskelak •
Dokumentazioak
Beztitzeak, etab...

24 orduko zerbitzua

Eta Iruritan...



IRACHE TANATORIOA

Iratxe Monastegia, 60
Tfnoa: 26 09 54

Aritzondo (Bergara auzoan) • Tfnoa: 580971 • ARIZKUN
Errepide Nagusia • Tfnoa: 592200 • NARBARTE
Jaime Urrutia 39 • Tfnoa: 580668 • ELIZONDO

MALBORRA

GABONETARAKO
GOZO BEREZIAK

• Mazapanak aukeran •
• Girlatxeak • turroi ezberdinak •
• polboroiak •
Eta betiko gozotegia: Urrakin
egina, tartak, pastelak...

Jaime Urrutia 15 • © 580061

Euskarari buruzko erakusketa eta ihardunaldiak arrakastatsuak

Bertzalde, abenduaren 2an ospatuko dute San Andres Eguna Zigaurre auzoan

TTIPI-TTAPA

'Euskararen bizitasuna Baztanen' izeneko ihardunaldietan 17 lagunek eman dute izena eta interes handiz ari dira gai hau lantzen Arizkunenea Kultur Etxean. Larunbatean izanen dute azken bilkura eta ondotik afora egingen dute. Bertzalde, egunotan zabalik izan da leku berean 'Euskara Betiko Mintzoa' erakusketa eta hainbat baztandar pasatu da bertatik.

San Andres

Larunbat honetan, abenduaren 2an, San Andres besta ospatuko dute Zigaurre auzoan. Lehen aldiz afora egingen da, bazkariaren ordezkari eta arratsko 8etan hasiko da.



Euskara Betiko Mintzoa erakusketaren zabalpenean Rodriguez Otxoa Hizkuntz Politikarako Zuzendari Nagusia izan zen, Baztango Balleko Etxeko ordezkariekin batera

Argazkia: ONDIKOL

Pello Salaburu EHUKo errektoretzarako hautagai

Pello Salaburu, azken lau urteotan Euskal Herriko Unibertsitateko euskara errektoreorde izan den arizkundarra, errektore izateko hautagaitza aur-

keztuko du. Hau idazterakoan gauza segurua ez bada ere, badi-rudi Pello Salaburuk sustengu handia lortu duela klaustrakideen artean.



ttipi-flash

Nafarroako Euskal Kantu txapelketan

baztandar aunitzek parte hartuko dute. Taldeka, Amaiurko Ausartak taldeak 'Bizi naiz munduan' kantatuko du. Bikoiteka, Elizondoko Maribel eta Biotzek 'Jaun zuria' abestuko dute eta Maider Sobrino eta Miren Urtizbereak, berriz, 'Goizian argi has-tian'. Saioa Leitzako zinean izanen da larunbat honetan, arratsaldeko 5etan.

Soldaduskaren aurkako geldialdiak egin ziren azaroaren 17an Elizondoko Lanbide eskolan eta Lekarozko institutuan. Bertzalde, bi ikas-tetxe hauetako Eskola Kontseiluko hauteskundeak azaroaren 29an burutu ziren.

BAZTAN FUNERARIA

EHORZKETA ZERBITZUAK • HILKUTXEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA • TRASLADOAK
Jaime Urrutia 53 • ELIZONDO
Tfnoak: 580373 • (908) 776176

ARROPA DENDA



CERVANTES HELVETIA SEGUROS

Era guzietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia

ttipi-ttapa

6.100 harpidedun
21.000 irakurle



ZURE ARGAZKIAK
ORDU BATEAN
EGITEN DITUGU

EZKONTZETAKO ERREPORTAIK

IA 100 URTE KALITATEA ETA
PROFESIONALITASUNA ESKEINIZ

ELIZONDO
Tel. 58 01 55

DONEZTEBE
Tel. Fax. 45 08 25



IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

UDAZKENEKO PUNTA-PUNTAKO ARROPA

Puntuzko jertseak, galtzak,
konjuntoak eta konplementoak

SARA

1996an uraren banaketa hobetzeko lanak egingen dira

Xilardiko Bordako eta Ibanteliko iturriak ere garbituko dira, ur ainitz galtzen baitzuten

MIXEL ETA JACQUELINE

1996ean Herriak 1.320.000 liberen (33.000.000 pezeta) gastua egiteko asmoa du etxetako uraren banaketa hobetzeko eta indartzeko. Egia erran, urtetik urtera galdeak emendatuz doaz eta hauei arabera erantzuna behar zaie eman. Orain obren hasteko Heriko Etxea zain dago zer dirulaguntza ardietsi duen bai kontseilu orokorretik baita Uraren Erakundetik (Agence de l'eau) ere.

Xilardiko bordako eta Ibanteliko iturriek bazuten garbitze beharra. Ur ainitz galtzen zen eskuin eta ezker, ur geldiak ez zirelako behar bezala betetzen. Herriko langileek antolatu dituzte.



Saratar talde hunek parte hartu zuen azilaren 12an, Behobia-Donostia laisterkaldian

Bertsozaleen hitz-ordua

Olhain ikastolak finkatu berria du horrengo Bertso saioaren

eguna: hau otsailaren 11n izanen da. Azken urte hauetan egiten den bezala Euskal Kultur Erakundearen partailetzarekin kontaktzen

du. Sustengu hau beharrezkoa dirudi. Olhain elkarteak ez dezake ekitaldi hunen iraupena bakarrik segurtatu, hor egin gastuak sar-

tzeek ez dituztelakotz gairiditzen eta zorrak egiten direlako.

Bertso saio hunek bertsozale gutxi biltzen badu ere, elkarteak egin dezaken guziaz egingen du ahal bezain luzaz bertsolariak gutartean ukaiteko. Gerorak erranen.

Pilota solas

Joko berriko lehia-keta hasi berria da polikiroldegian. Iaz berrogei bikotek parte hartu zuten. Hunen antolaketaz Sarako Izarra pilota elkarteari doakio.

Axular

Abenduan burutuko da Axular idazlea aitzakitza hartuz gaitzeko kultur hilabetea. Azkaine, Sara eta Zugarramurdi bildu dira xede horrekin.



ZALDUBI

Martin Lizasoain Adanso

Zaldubia Poligonoa • 580562
IRURITA - BAZTAN

SUKALDE ETA BAINU MOBLEAK

*Egoki-ren banatzaile
baimendua*



MENDI OSTATUA

Santiago 25 - 580313
ELIZONDO

M^a Dolores Miñana

TOPOGRAFA

NEURKETAK • PLANOAK

Lur neurketak, Luberriak
Plantazioak, etab...

Santiago 68, 3. esk. 580143
ELIZONDO

MENDIALDE Jatetxea



Etxeko gasnak saltzen ditugu

Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan

AMAIUR • Tfnoa: 45 30 60

HERRIKO ETXKO EDANTEGIA

Michel eta Kattin
Guerendiain

Tfnoa: 59 54 25 19
64130 SARA



Urdazubi

Errota zaharra berriztatze- asmoa du udalak

Argindarra sortzeko eta turistentzat ikusgarri gisa antolatuko da

ALIZIA OLAIZOLA

Urdazubiko herrian dagoen errota zahar-berritzeko asmoa du udalak, eta horretarako dirulaguntza eskaria luzatu dio Nafarroako Gobernuari.

1972 arte artoa jostzeko eta argindarra sortzeko erabilia izan da, eta azken urteotan gelditua zen. Orain, zaharberritu ondotik, berriz ere argindarra sortzeko erabili nahi dute, karrikak eta frontona argiztatzeko, eta bidenabar, turisten ikusgarri gisa ere.



Azkeneko alean aipatu bezala, Indianobaita, eskuin aldean eta ezkerrealdetik gibleko partean dagoen Mitxelenea ere filmatu zituen ETBK.

Etxebizitza eta Hostal berriak

Azkeneko urtetan etxebizitza berriak egin dira eta orain ere bertze pare bat hasiak dira egiten. Bat Alkerdi auzoan eta bertzea Larrainta auzoan. Hoietaz gain, Hostal berri bat ere izanen da. Kanpotar batzuk kuartel zaharra erosi dute, eta orain berritze lanetan ari dira etxebizitza eta hostala paratzeko. Hostalak 18 ganbara izanen ditu.

Zugarramurdi

Herriko 4 bikote Baztango Haur eta Gaztetxo- Esku Pilota Txapelketan

MARGARI ETA KORO

Aurtengoarekin XIV. edizioa du Txapelketa honek eta herriko lau bikotek parte hartzen dute horretan.

Bakoitzak lau partiduko jokatu, ligaxka gisan antolatua da eta herrietako frontonetan jostaten da aipatu txapelketa.

Abenduaren 17an Zugarramurdiko Azketa frontonean izandako partidura jende andana bildu zen zein ederki jostaten zuten ikustera.



Inaxio Errandonea herriko pilotariei sariak emanez

ttipi-flash

Errestaurazio ikastaroa

Ospitale zaharrean astelehen eta asteartetan, 7etatik 10-etara, 15 lagun bitzen dira.

Lezeetan neguko ordutegia

Egunero goizeko 9etan edekiko dira ilunabarra arte. 'Sorgiñak' antzerkia, ez badago espreski enkargaturik, larunbata eta igandetan arratsaldeko 4,30etan eskaintzen da. Gai honi loturik, lehengo aldiaren autobus batek 6 haur herrian ahanzi zituen. Izialdia pasatu ondotik, umeak lasaitu ziren eske etorri arte.

EZKONTZAK

Ignacio Maritorena Urrutia eta **M^a Luisa Gamio Gaztelu**, Elizondo eta Berroetakoa, azaroaren 4an.
Ignacio Galtzakorta Urtxegi eta **Natividad Elgorriaga Etxebeste**, Irungoak Beran, azaroaren 18an.
M^a Jesus Bergara Lazkano eta **Lazaro Zabala**, Arantza eta Leitza-koa, azaroaren 18an.
German Alkain Altza eta **Asun Sein Sein**, Hondarribia eta Igantzikoa, azaroaren 11n.

JAIO TZAK

Aingeru Olabe Lertxundi, Elizondokoa, azaroaren 8an.
Asier Olabe Letona, Elizondokoa, azaroaren 11n.
Mattin Irungarai Gamio, Gartzaingoa, azaroaren 11n.
Iñaki Gamio Ekioiz, Berroetakoa, azaroaren 10ean.
Mikel Etcheverry, Sarakoa, azaroaren 9an.
Iñaki Gallardon Eugi, Etxalarkoa, urriaren 21ean.

HERIOTZAK

Carmen Ostiz Iribarren, Doneztebekoa, azaroaren 14an, 84 urte.
Jaime Elizalde Seminario, Doneztebekoa, azaroaren 17an, 33 urte.
Jose Inda Maritorena, Amaiurkoa, azaroaren 8an, 82 urte.
Anastasio Alberro Zugarramurdi, Elizondokoa, azaroaren 10ean, 85 urte.
Marcelino Txoperena Ubiria, Lesakakoa, azaroaren 13an, 71 urte.
Simon Etxeberria, Sunbillakoa, azaroaren 17an, 73 urte.
Francisco Lazaro Gorostidi, Elizondokoa, azaroaren 21ean, 89 urte.
Kattin Cenes-Goyenetché, Sarakoa, azaroaren 10ean, 74 urte.
René Calvet, Sarakoa, azaroaren 9an, 66 urte.
M^a Jose Tomasena Zubieta, Etxalarkoa, azaroaren 10ean, 31 urte.

GLOBAL

- Hizkuntz egonaldiak atzerrian urte osoan zehar; ikastaro klasiko eta espezializatuak, Paying-guest, Au-pair, udako ikastaroak, Unibertsitateak
- Itzulpenak: FRANTSESA/INGELES/ALEMANIERA

Colon Pasealekua 36, 1.D - Tel. eta Faxe: 943-614698 - 20301 IRUN


ERLOJU eta BITXI DENDA



ARRIETA

KIROL TROFEOAK


Tfnoa: 580 445 - ELIZONDO



publyservicios

PUBLIZITATE ERREKLAMO saila

giltzariak, karterak,
termometroak,
metxeroak,
boligrafoak, etab.



Telefona: 908 - 67 27 09 • IRUN

ERTZILLA

ALBAITARITZA

KONTSULTA

Txakur eta katuendako

ORDUTEGIA

10etatik 1etara eta 4etatik 8etara

Larunbatetan 10etatik 1etara

Santiago 30, © 580627


Larrialdia: © 580762

ELIZONDO

BEHARREZKO TELÉFONOAK



SOS Nafarroa eta	
Urgentziak.....	088/061
Osasun Zentruak	
Elizondo.....	452367 / 580235
Doneztebe	450300
Lesaka	637428 / 637336
Leitza	510248 / 510573
Nafarroako Ospitaleak	
Nafarroako Ospitalea	102100
SSko Urgentzi	
Zerbitzua	246750
Virgen del Camino	
Erresidencia	109400
Gurutze Gorria	226404
Gipuzkoako Ospitaleak	
Irungo ospitalea	614600
Gipuzkoako ospitalea	460299
Erresidencia	453800
Anbulatorioak	
Irun	630264 / 621106
Anbulantziak	
Oitz	450242 / 450805
DYA	
Lesaka	
(Larrialdiak)	(943) 464622
Doneztebe	
(Larrialdiak)	171717
FUNERARIA	
Doneztebe	450475
Elizondo	580924
Lesaka	637404
Suhiltzaileak	
Oronoz-Mugairi	592255
Garraioak	
Bidasotarra	631150
Baztanesa	580129
Leitzaran	515018
Aberiak:	
Iberduero	450335 / 450336



Eskualdeko alkateen eskakizunak entzun zituzten Otano presidentek eta hiru kontseilarik

Nafarroako Gobernuaren lehen-dakaria, Javier Otano; Lurralde Antolaketa-ko kontseilaria, Javier del Castillo; Nekazaritza eta Landa Garapenarako kontseilaria, Javier Etxarte eta Herrilan kontseilaria, Florentino Lopez Isturiz eskualdeko 20 alkaterekin elkartu ziren Bertizko Jauregian azaroaren 17an.

Otanok adierazi zuenez, alkateen eskakizun gehienak oihangintza eta obra publikoen alorrean finkatu ziren. Alkateak kezkatuak daude Mendi Zerbitzua aurrerantzean Ingurugiro Departamentuaren barranean egotea onuragarria izanen ote den. Javier del Castillok adierazi zuenez Mendi Zerbitzuaren antolaketaren berria positiboa izanen da udalentsat.

ERREPIDEAK

121 errepideak Behobia eta Dantxarinearatuaren aterabideen hobetzea, Doneztebe-Leitza tartea eta NARBARTe, Oieregi eta Etxalarko saihesbideen aferra ere aipatu zen.

Lopez Isturizek adierazi zuenez, eskualdean 40.000 milioi inbertituko dira Errepide Planaren arabera.

Belateko tunela pasatzeko bidesaria pagatu beharko ote den ez dago baztertuta. Lehenik obrak bukatu eta gero ikusiko da.

Herrigunetik kanpo etxebizitzak egiteko onartu berri den arautegia berriz aztertuko zuela hitzeman zuen del Castillok, eta Manuel Iriarte, Berako alkateak, Bortziriarik 5b Eremutik kanpo gelditu izanagatik dagoen kezka azaldu zuen.

Hiru bidairen zozketa

BertizkoPartzuergo ko Merkatarien Elkar-teak Torremolinosea aste bateko 3 bidai bi-koitz zozketatuko di-tu. Denda asoziatue-tan erosteagatik, bole-toak emanen zaizkie bezeroei. Zozketa ur-tarrilaren 15ean iza-nen da.

Azken egunotako ur-eskasia arindu da euriarekin

Bera, Elgorriaga, Urrotz eta bertze zen-bait herrietako ur-moz-ketak bukatu dira mo-mentuz. Aurtengo le-hortea, azkeneko ur-teotan ezagutu den go-gorrenetakoa izan da. Egoera honekin kalte-tuenak, baserritarak.

EHNEREN MOZIOA

Ureskasiak baserri-etako produkzioa mu-rriztu du nabarmenki, %61 leian EHNEk egin-dako ikerketaren ara-bera. Hortaz, mozio baten bitartez kalte-or-daina eskatuko zaio Nafarroako Gobernu-ari. Dagoeneko Bera, Igantzi, Doneztebe, Leitza, Sunbilla, La-baien eta Donamariak onartua zuten mozioa.



HIRI ARTEKO, ESTATU BARNEKO eta NAZIOARTEKO BIDALKETAK

Paketeak eta dokumentuak bidaltzeko modurik azkarrena

- **GARRAIO URGENTEAK:** Estatu guztian goizeko 10ak baino lehen entregatuko dugu.
- **24 ORDUKO ZERBITZUA:** Arratsaldeko 6ak arte entregatuko dugu

ZERBITZU GARANTIZATUA

Martin Urrutia Etorbidea z/g • ORONOZ MUGAIRI
Tfnoa eta Faxes: 592179



Limpiezas ANIZ

JUAN ARRAZTOA ZUBIRI

Panteoiak garbitzen ditugu

Baita zolak, etxe aintzinaldeak, harriak, ladrilloak, denetarik

Iruregaina Industrialdea, 61 nabea AIZOAIN
© 303342 - 580185 - 276923

Taldea osatzeko intentzioarekin hasi, eta mailaz igotzeko aukera du Leitzako Aurrerak

- ✕ Bere multzoko lehen postuan dago Nafarroako Erregionaleko lehen mailan
- ✕ Gol gehien sartu eta gutxien jaso dituen da kategoria osoan

Leitzako Aurrera taldea da eskualdekoen artean denboraldi bikainena egiten ari dena. Nafarroako Erregionaleko lehen mailako I. multzoan lehen-dabizikoa da sailkapenean, 12 partidu jokatu ondoren 11 irabazi eta bakarra galdu baitu. Gol gehien sartu dituen taldea da, 49 (batzaz beste partiduko 4 baino gehiago) eta gutxien jaso dituen, 5. Sailkapenean bigarren dagoenari 9 puntuko abantaila ateratzen dio hau idazterako orduan.

Multzo bakoitzeko hiru lehenak igoera ligaxkarako sailkatzen direla kontuan hartuz, "hor sartzeko posibilitateak dauzkagula" usate du Iñaki Perurena entrenatzaileak. Halere, Preferenterako igoeraz hitzegiteko azkarregi



Denboraldi guztian partidu bakarra galdu du Leitzako Aurrera futbol taldeak

Argazkia: Mujika

deladio, "pausoka pausoka joan beharko dugu eta gauza ongi ateratzen bada, orduan hasi hortan pentsatzen. Jendea oso motibatua zegoen. Orain arte herriko jendeak jokatzeari lortu dugu eta Prefe-

rentera igo ezker, igo al beste zer baitetan pentsatu beharko da".

AFIZIOAREN BABESA

"Afizioaren babesa beti izan dugu" azpimarratzen du entrenatzaileak. "Zelaia ere erdi auzolanean egin ge-

nian 1983an, subentziorik lortu gabe".

Aurrera taldearen urteko aurrekontua bi milioi t'erdi pezetakoa da, Joxemari Razkin lehendakariaren esanetan. "Hori bidaiak jokalaria eta direktiboen ko-

txeetan egiten dugula. Talde nagusiaz gain, infantiletan neska eta mutikoen talde bana dugu, Nafarroako Jolas Kiroletan parte hartzen, Manu Arangoa eta Juantxo Larraia entrenatzaileekin". ■

Iñaki PERURENA, entrenatzailea:

«Partidoak ez dira igandetan irabazten, astean zehar egindako lanean baizik»

■ **Zein helbururekin hasi duzue denboraldia eta zein neurritan betetzen ari da?**

□ Hasierako helburua taldea osatzea zen, joan den urtetik 11 baxa baike nituen, pentsa! Beterano batzuei genuen arazoa esan eta berriz hasteko prest agertu ziren. Gazteekin nahasketa egin eta momentuz behintzat, ongi ateratzen ari zaigu.

■ **Non dago hasiera bikain honen sekretoak?**

□ Aurten arte entrenamenduekin arazoak genituen, jendea kanpoan estudiatzen baitzuen. 5-6 lagun elkartzen ginen entrenatzera eta horrela ez zegoen lan egiterik. Aurten 10-12 lagun biltzen gara eta hor zegoen sekretua. Partiduak ez dituk igande-

tan irabazten, astez irabazten dituk, lana ongi eginda.

■ **Nola definituko zenuke zure taldea?**

□ Disziplina taktiko aldetik oso moralizatua dagoen taldea da eta atzeneko partiduetan teknikoki ere oso ongi jokatzen ari da.

■ **Zein nota jarriko zenioke orain arte egindakoari?**

□ Zortzi bat.

Banan Bana

Jokalaria	Postua	Adina
Unai Zabaleta	Atezaina	19
Pello Belaunzarán	Atezaina	22
Unai Arzallus	Atzelaria	18
Lazaro Vicente	Atzelaria	33
'Dani' Alkorta	Atzelaria	22
Jon Barriola	Atzelaria	21
Arkaitz Lasarte	Atzelaria	18
Jesus M ^a Larraia	Atzelaria	33
Iñaki Mariezkurrena	Erdilaria	19
Unai Lasarte	Erdilaria	21
Jose Antonio Jimenez	Erdilaria	18
Noe Buldain	Erdilaria	19
Mikel Saizar	Erdilaria	26
Joseba Vicente	Aurrelaria	22
Angel Irujo	Aurrelaria	24
Unai Romero	Aurrelaria	19
Joseba Goikoetxea	Aurrelaria	26
Fran Ariztimuño	Aurrelaria	26
David Ariztimuño	Aurrelaria	19

DATUAK

- 1 Julen Salaberria, orain dela 28 urte jaio zen Goizuetan.
- 2 Hemezortzi urte zituenetik pilotari profesionala da.
- 3 Joan den denboraldian eskuz binakako txapelketa irabazi zuen eta Espainiako txapelketako finalerditara ailegatu zen, bietan Beloki lagun zuela.
- 4 1991n ere finalera iritsi zen Galartza bikotekide zuela eta Arretxe eta Retegiren kontra galdu zuten.
- 5 Halere, ustekabeen, ez du aurtengo edizioan parte hartzerik izanen enpresariaren erabakiz.

TESTUA:
AITOR AROZENA

Julen SALABERRIA:


«Ez da bidezkoa ni Espainiako txapelketatik kanpo uztea»

Espainiako eskuz binakako txapelketa hasi berria da eta aurtengoan eskualdeko ordezkari bat guttiago izanen da, Julen Salaberria aurrelari goizueta-rra kanpoan utzi baitute. Julenek ez du ulertzen zergatia: "nere bizitzako denboraldirik borobilen egin dut profesionaletan Bilboko Hiria Saria eta Euskadiko eskuz binakako txapelketa irabazi dut. Gainera, Espainiako txapelketatik bota naute, azken edizioko semifinalista izanik".

Arrunt gogorra izan da goizuetarrarentzat kanporatze hori. "Nagore sartzearen aitzakia jarri dute, eta ongi dago, Nagorek ere merezi zuen txapelketan sartzea, baina puesto gehiago bazeuden horeta denen merituak ikusita sartzeko posibilitateak nituela uste dut". Azkeneko sei txapelketetan parte hartua zen goizueta-rra eta honen "ratxa hori mozte" suposatzen duela dio.

HAMAR URTE PROFESIONALETAN

Momentu txarrak bizi izan ditu hamar urte hauetan, baina agian hau izan da txarrena. "Notizi bat eman di-



Makilkada haundia jaso duela onartu du Salaberriak

datenean hartu duten disgustorik haundikoena hau izanen duk. Txapelketan parte ez nuela hartuko jakin ondoko gauean ez nuen lorik egin".

1991n finalera ailegatzea lortu zuen, Galartza atzelari zuela, baina Arretxe eta Rete-

giren kontra galdu zuten. Hura gogoratzen du Julenek momenturik onena bezala, "orduz geroztik jendeak gehiago ezagutu baininduen".

Aurtun ere oraindik aukeraren bat badu txapelketan parte hartzeko, bertze norbaitek huts egin edo lesioren bat izaten badu, alegia. Goizuetako ezkerak, ordea, ez du honela gustora parte hartuko. "Deitzen banaute joanen naiz, baina ez zait

gustatzen norbaiten so-breroa bezala jokatzeko". Salaberriaren ustetaz, "niri ez zidatek sekula baloratu egin dudana, pixko bat ohitua negok horretara baina min ematen dik". "Orain dela bi urte ere segitzen du Julenek berak lehenbiziko urtea zuela, Elkoro eta biei jarri ziguten pareja bezala, koadroa betetzeko 'relleno' gisara edo, eta finalerdietan sartzeko punttun egon ginen". ■

► "Profesional bezala egin duten urterik borobilenaren ondoren eta azken edizioko semifinalista izanik, txapelketatik kanpo utzi naute, ez da errex entenditzeko modukoa"

AGENDA EGUNEZ EGUN

KULTUR EGUNAK

ITUREN

► **Abenduaren 7tik 9ra.** mintzaldiak, zinema, kirola eta musika kontzertuak. Xehetasunak 16. orrialdean.

KONTZERTUAK

ITUREN

► **Azaroaren 17an** Gaueko 11etan, 'Hau marka', 'SFO' eta bertze talde bat.

ZUGARRAMURDI

► **Abenduaren 9an** Arratseko 11etan ezker paretan rock kontzertua 'Zazpi Eskale' taldearekin eta dantzaldia 'Xitoak' taldearekin.

KANTALDIAK

SARA

► **Abenduaren 17an.** igandea, arratsaldeko 5eta Sarako Polikiroldegian:
• Peio Ospital, Mixel Ducau eta Caloline Philips.
• Niko eta Dominika Etxart eta Robert Larrandaburu.
• Altxükütarrak.

BERTSO AFARIA

ZUGARRAMURDI

► **Azaroaren 16an.** Armua ostatuan arratseko 9etan Amuriza eta Peñagarikano.

DYA EGUNA

DONEZTEBE

► **Abenduaren 2an** Xehetasunak 17. orrialdean.

AGENDA PRAKTIKOA

ERREZETA



Bi koloreko pastak

Osagaiak 2 dozena egiteko

• urrak 75 gr. • Txokolate beltza 120 gr. • irina 315 gr. • gatzia • gurina 135 gr. • azukrea 150 gr. • 2 arraultze haundi • bainilla pixka bat •

Prestatzeko manera

Urrak xehetu eta txokolatea urtu. Gurina, azukrea, arraultze bat eta bainilla hautsa nahasi

eta poliki-poliki irina eta gatzia bota. Ore horretatik katilu bat eta laurden gorde. Gelditzen den oreari txokolate urtua bota eta ongi nahasi. Bi oreak hozkailuan sartu 20 minutuz. Hoztu direnean, bi koloreko ore hauekin konposizio geometrikoa egin. Ore xuria eta txokolate kolorekoa elkar itxekitzeko, bertze arraultzea erabiliko dugu. Egin



Kristina ZALBA eta Xabier BALLARENA
Malerrekako II. Postre Lehiaketako irabazleak

dugun blokea ordu batez hozkailuan sartuko dugu, eta hoztu denean, pasta neurriko zatitan moztu. Pastagaiak labean sartu 180ºtan 10-12 minutuz. On egin.

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

• **Zerrikumea** (20 kilokoak): 6.400 pzta.
• **Zerri gizena** (95-100): 183 pzta./kilo
• **Zerramak**: 125-130 pzta./kilo bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

• **Aretze gizenak**:
• **Idixkoak**: Pzta./kg. Kanal
Extra 560
1.koa 540
2.koa 520

• **Urruxak**: Pzta./kg. Kanal
Extra 570
1.koa 550
2.koa 520
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruzentzako.
• **Aretze tikiak** (15 egun ingurukoak):
Nabarrak: urruxak 20.000 eta idixkoak 28.000 Pzta.
Mestizoak: urruxak 32.000 eta idixkoak 45.000 Pzta.
Behi zaharrak:
Behi nabar gizena: 400 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 470 Pzta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIAK: EHNE, ZUBIRIA MINDEGIAK...



❖ FRUTONDOAK ❖

Hiru urteko landare bakoitza

• **Bertako sagarrondoa** 950.
• **Udareondoa** 950 pzta.
• **Gereziondoa** 1.050 pzta.
• **Aranondoa** 1.050 pzta.
• **Muxika** 870 pzta.



❖ BARAZKIAK ❖

• **Porruak** zientoa 300.
• **Piper txorizero** zientoa 800.
• **Piper morro** zientoa 800.
• **Piperminak** zientoa 600.

ETXANDI TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN
Tfnoa: 45 04 91

koxkonta



Ezkontza, bataio eta bileretarako leku egokia

Deitu erreserbak egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • **LESAKA**

KULTURA

Azkaine, Sara eta Zugarramurdi bateratuko dira abenduan kultur hilabetea eskaintzeko

Azkaingo Altxalili, Sarako Gaztetxea eta Zugarramurdiko Akelarre elkarteak bat egin dute gaitzeko kultur hilabetea antolatzeko. Horretarako, Axular idazlearen bizia hartu dute aitzakitzat, eta abendu osoan banaturik, mintzaldi interesgarriak, rock kontzertuak, kantaldiak, antzerki eta zinema emanaldiak, bertso afaria, erakusketak, liburu aurkezpenak... ekitaldi andana, azken finean, abenduko arrats hotzak goxatzeko.

Abenduaren 2tik 29ra etxe xokotik ateratzeko aukera ugari egon da herri batean ez bada bertzean. Axular eta Denbora lelopean, Altxalili, Akelarre eta Sarako Gaztetxea elkarteak bildu egin dira, eta horretarako, Axular apez idazlea hautatu dute hiru taldeen arteko lokarri gisa eta harek idatzitako Gero liburua bila-



Kultur hilabetearen berri emateko prentsaurrekoa eskaini zuten Saran hiru herriotako Kultur Elkarteek

katu da ekitaldien ardatz nagusi, «ez baita geroke utzi behar egun berean egiten ahal dena!»

Ekimen honen sorburua 1986 izan zen, Urruñako Hazia elkarteak proposatu zienean Azkaine eta Sarakoei kultur astea antolatzea Olentzero gaiaren inguruan. Geroztik, urtero antolatzen da zerbait, bainan aurtan lehenbiziko aldiz mugaz gai-

*Abenduaren 9an,
Zugarramurdiko
ezker paretan, Zazpi
Eskale taldearen
kontzertua eta
Xitoak taldearekin
dantzaldia iraganen
da.*

nekoa izanen da. Paskal Oxandabarats, Altxalili elkarteak kideak adierazi zue-nez «asmoa genuen elgarrekin zerbait antolatzeko, aspalditik elkar ezagutzen baitugu».

MINTZALDIK, ERAKUSKETAK ETA ANIMAZIO UGARI

Altuna euskaltzainak Axularren bizia eta lanaz ematen duen mintzaldiarekin abiatuko dira eta denetara, lau mintzaldi iraganen dira Azkaingo Bil Tokian. Patxi Altunaz gain, Piarres Xarriton Joxemartin Apalategi, Beñat Oihartzabal eta Xan Irigaraik ere eskainiko dituzte bereak. Horrekin batera, dantza ikusgarriak, kontzertuak eta antzerkiak aldizkatuko dira.

BAZTAN ALTZARIAK zurgindegia

121 errepide nazionala, 54. km

Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak



AGENDA EGUNEZ EGUN

ERAKUSKETAK

LESACA

► Azaroaren 19tik abenduaren 3ra

Beti Gazte elkarteak, V. Argazki lehiaketan parte hartu duten lanen erakusketa.

ZINEA

BERA

► Abenduaren 3an

arratsaldeko 5,30etan Kultur Etxean, 'Milagro en la ciudad'.

DONEZTEBE

► Abenduaren 2-3an

zine aretoan 'Batman For ever'.

► Abenduaren 6-8an

zine aretoan 'Alerta máxima II'.

► Abenduaren 9-10ean

zine aretoan 'Maité'.

► Abenduaren 16-17an

zine aretoan 'La pasión turca'.

GUARDIAKO BOTIKAK

► Azaroaren 27tik abenduaren 3ra

Ettxalar, Doneztebe, Elizondo (Iturralde), Leitza eta Goizueta.

► Abenduaren 4tik 10era

Arantzaz, Sunbilla, Elizondo (Lezaun) eta Goizueta.

► Abenduaren 11tik 17ra

Igantzi, Ituren, Elizondo (Iturralde) eta Goizueta.

► Abenduaren 18tik 24ra

Lesaka, NARBARTe, Elizondo (Lezaun), Urdazubi, Leitza eta Goizueta.

ETXEBIZITZAK

BERA. Pisu bat alkilerrean behar baduzu deitu 630557 **ra** (Ramon).

BERA. Pisua salgai. **ra** 630686 (arratsetan).

DENETARIK

Kartelak, buzoiratzeko pa-perak, bisita txartelak, Faktura taloiak... egiten ditugu. Merke eta azkar. **ra** 631188.

ARIZKUN. 10-12.000 m²ko terrena salgai. Dena zelaia da. Urtsuako Jauregiaren ondoan. **ra** 580346-453090.

IRUÑEA. Txantrea auzoan neska bat behar da pisua konpartitzeko. **ra** 151505 (arratsaldetan).

BERA. 25 m²ko garaje plaza salgai, Korreos bulegoaren azpian. **ra** 630177.

Jangelako mobleak salgai. Egurrezkoak dira, zaharrak. Mahai bat, 6 aulki eta bi besaulki. Interesatua egonez gero, deitu eguerditan. **ra** 630685. Maria.

Gitarra elektrikoa, Academy markakoa, salgai. **ra** 630003. Iker.

Akordeioa salgai, Borsini markakoa eta 'Concierto medio' modelokoa. Kromatikoa eta baju solte-

ekin, bere estutxe eta guztia. **ra** 630884 (Rosario).

Teilak salgai Leitza. Prezio onean. **ra** 510204 (eguerdi eta iluntzetan).

Iruñean gela bat alokairuan emanen nuke. Hobe neska bada. **ra** 450428.

Giltxaur edo **gerezi** plantak salgai. **ra** 453037 (3etatik 4etara).

Wasler markako **sukalde kalefaktorea**, 60x50 neurrikoa daukat saltzeko. Etxebizitza bateko kalefakzioa eta ur berorako nahikoa. Oso egoera onean eta oso merke saltzen dut. **ra** 510065 (Leitza).

200 litroko **gasoi** depositoa salgai. **Bi butaka** ere salduko nituzke. **ra** 631239.

Bodega bat saldu edo alokatzen da Lesakan. **ra** 637453.



Maderas Zabala, S. A.

Su-egurra eta egur azalak salgai, moztuak eta prezio onean.

Haritza eta pagoa.

Dagoena akitu arte.

© 45 01 35 • DONEZTEBE

Artoa miaurtzeko makina salgai. **ra** 630994.

Esnea hozteko 200 litroko tankea salgai, Alfa-Laval markakoa. **ra** 581023.

LANA

23 urteko neska batek haurrak zaintzen edo etxeko lanetan lan egingen luke. Goizeko 8etatik 2etara. Esperientziaduna. **ra** 631348. Begoña.

Erizain titulatuak, adineko jendea zaintzen lan egingen luke. Esperientziarekin. **ra** 630578.

18 urteko neska bat lan bila dabil. Lesakan edo inguruetan: Haurrak edo adineko jendea zainduko nuke. Ostalaritzan ere arituko nintzateke (bainan ez daukat esperientziarik). **ra** 637121 (Idoia, arratsaldeko 6etatik aitzinera).

IBILGAILUAK



Bigarren eskuko autoak, furgonetak eta mendiko autoak erosiko nituzke. Eskura ordaintzen da.

© 45 03 54 • DONEZTEBE

Peugeot 504 autoa salgai, NA-M matrikuladuna eta gasoilekoa. Merkea. **ra** 631422 edo 450935 (iluntzetan).

Motoa salgai, Cota 304 markakoa, 140.000 pezetatan. **ra** 610686 (Leitza).

Karrerak **bizikleta** BH markakoa eta Action modelokoa salgai, estrenatu ga-bea. **ra** 627623.

AZIENDAK

Urtebeteko **txerri bat** salgai. **ra** 510277.

Hiru zakurkume salgai, aita eta ama ehiztariak. **ra** 510249.

Ehizarako **bi zakur** salgai, bat bi urtekoa eta hiru urtekoa bestea. **ra** 510249.

Artzai txakurra salgai, 5 urtekoa eta arditan dakiena. **ra** 943-492730.

Hilabeteko **lau zakurkume** erregalatzen ditut. **ra** 630589.

Siberiar Husky arrazako 6 zakurkume salgai. **ra** 631060. Rafa.

AGURRAK

Narbarteko Katixa Oteizaru: Ongi pasa deza-la bere urtebetetze egunean Narbarteko lagunak partez.

Vanessa Torresen partez muxu bat Imanol Zubietari.

Berako Ainhoa Azkarragaren partez muxu bero bat Lesakako Aritz Altzugarairi.

Gurutze Pikabeari bere anai-arreba, iloba, koinadu eta Artxi bere lagunaren partetik muxu haundi batekin zorionak (Azaroak 13).

Berroetako Nekanerentzat: Non dago nik ezagutu nuen neska jatorra eta alaia. Zer gertatzen zaizu? Larunbatean zure erantzuna espero dut.

Marina B.ri: zorionak bere urtebetetze egunean. Ongi pasa egun hori familiakin. Zure familiaren partez.

Berako P. Errandoneari: Nerekin atera nahi duzu? Xabi I. ren partez.

Berako Patriziaren partez, Lesakako Andoniri, oso guapoa zara.

Berako neska batzuen partez muxu bero bat Aritz Altzugarai, Julen Zurbano eta Garaile Valverderi.

Mugairiko Jaione, Karmele, Mikel, Ruben, Melo eta Joseba arras majuak eta euskaldunak zarete. Iturongo neska eta mutikoen partez.

Berako Maiteri: Zorionak zure urtebetetze egunean (abenduak 3). Ia! noiz ospatzen dugun.



GELTOKIAK, S.L.

Aukerako ibilgailuak

100 ibilgailu baino gehiago

- Mendiko autoak
- Turismoak
- Auto komertzialak

BERA (tunelaren ondoan) • © 908.779356



Mª Nieves
Andregaiendako
arropa IRUÑen

Zure andregai arropa berezia eta zure neurrirra egina izatea nahi baduzu, deitu Irungo 943-627977 telefonora.

Abenduaren 8tik urtarrilaren 8ra, gure modeloak **MENTXU** etxeko lentzeria dendan ikus ditzakezu.

Colon Pasealekua, 11
© 943-633113 • IRUN

ZURETZAT ERRAZAGO IZATEKO, PEDRO GARMENDIAN IAT-ITVa HASIERATIK AKABERA BITARTE MOLDATUKO DIZUGU.

■ IAT-ITVaren **AURRE DIAGNOSIA** egiten dizugu estazio ofizialean erabiltzen dituzten makina berdinekin.

■ IAT-ITVa pasatu ahal izateko zerbait konpondu behar dela ikusi badugu, **AURREKONTUA DOHAINIK** egiten dizugu.

■ Aldatu behar diren pieza guzietan **%25eko DESKONTUA** eskaintzen dizugu.

Gu arduratuko gara:

- Zure etxetik autoa biltzeaz
- Tasak ordaintzeaz
- IAT-ITV ofiziala pasatzeaz
- Autoa berriro etxera bueltatzeaz

**ETA NAHI BADUZU IAT-ITV OFIZIALA
EGUN BATEZ PASATUKO DIZUGU**

PEDRO GARMENDIA, S.A.
Errep. z/g - Tfnoa. 58 04 31 **ELIZONDO**

TALLERES SANTESTEBAN
Leitzako Errep., 1. km.a - Tfnoa 45 02 82 **DONEZTEBE**

SEMPER HNOS., S.L.
Irun-Iruñea Errep. - Tfnoa. 63 06 21 - **BERA**



RENAULT

EZ GALDU MINUTU BAT ERE PEDRO GARMENDIAN GUZIAZ ARDURATUKO GARA.

TOP CLASS ENGLISH INGELES AKADEMIA

Alan Leiper

ZUZENDARIA



ITZULPENAK

Ingelesa, Frantsesa eta Italiera.


ITZULTZAILEAK

Hitzaldiak, enpresak, etabar.

Ikusentzuneko Metodoak • Hango Irakasleak • Udako Ikastaroak

LESAKA • Bittiria Plaza, 6 Behea • Tfnoa. eta Faxe 63 72 00

BERA • J. Caro Baroja, 10 Behea



Zer eskaini ahal dizu

Gida honek?

DEN-DENA

Den-dena eskura eduki nahi baduzu, GIDA honetan aurkituko dituzu inguruotako profesional, komertzio, lantegi eta zerbitzu guzi-guziak. Informazio osoa eta goitik behera gaurkotua, erabiltzeko eta gauzak bilatzeko erraxago antolatua, eta guzi hori, etxetik mugitu gabe.

Gida 96

Inguru honetako etxe guzietan zure negozioaren berri izatea nahi baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan eta milaka pertsonen irakurriko dute zure mezua.

ttipi-ttapa • Herriko Etxeko Plaza, 1 • 31780 BERA

Hegoaldetik deitzeko 948- **631188**
Iparraldetik deitzeko 19-34-48-